

EVSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

VIII Zenbakia.

1989
Uztaila-Iraila

AURKIBIDEA

	Orr.
"Zeleta". (Barruko azalean)	
Noiz erabili tzaz atzizkia?. L. Akesolo.	1
Euskera ta Euzkal bizia. A Urrestarazu.	4
Ama Euskera. S. Muniategi.	7
Merkataritza. Arrinda, A eta D.	12
Oñatibia'tar Yon Eusk. Irak. J. Gaztañaga	22
Euskerazko akatsak. J. Gaztañaga.	27
Errietako izenak. A. Arrinda.	28
Txomin Agirre kolokan? F. Yurramendi.	29
Euskera dala-ta. S. Onaindia.	31
Euskal Abostegia. M. Olazar.	35
Euskera lantzen. A. Zatarain.	38
Euskeraren etorkizuna. H. Artolazabal.	44
L. Akesolo euskal azterzale. J.M. Etxebarria.	46
L. Akesolo'ren bizitza ta izakera... L. Arostegi.	50
Eguraidiak. Deitura ta esaerak. A. Zubikarai	54
L. Akesolo. P. Solozabal. (Atzeko azal-barruan)	
Idazlan Guztiak. J. Urkiza. (Kanpoko azalean)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

"ZELETA"



Uztaillean il zan Logroño'n, 91 urte beteta. 1914 urtean asi zan idazten.

Aldi txarretako idazlea. Eragozpen askoren mendeko. Orrez kanpo, lanpetua, merkataritarteko, batetik bestera ibiltera beartua. Bai eta bere kabuz ikasia, auto-didakta.

Gizon ona, jatorra, biozkorra, baikorra, berakats atala lakoxe tiña.

Euskal jairik iñun ba zan, ez zan bera urrun ibiliko. Gaitasun berezia eukan orrelako jaietan zela-ala parte artzeko. Jalan ez ba zan, berak billatuko eban tarteren bat bere lantxoren bat irakurri edo ezagutu eragin eta jaiari bere kutsua sartzeko.

Urteak dira bizitzako gora-bera batzukaitik Donostitik Logroño'ra eroan ebela. Ba dakit an Euskalerriko urrunggaitzez bizi zala. Miñez eta naigabez. Baiña ori be alargunok bizitzan ikasi bear dogun ikas-bearra da. Beretzat etxe eta erri aldaketa ori, bere gauzei, emengo maitasun eta zaletasuneig agur egin bearra izan zan. Ain atsegin zitun lagun arteko txolarteei uko bearra.

Lasarte'n jaioa zan. Oraindik Lasarte besteen menpeko auzo zanean. Origaitik bere "Lasarte-Aurtzaroko oroipenak" zeaztasun eta jakingarri ugariz betea.

Euskal gaietaz kaleratzea bide-kurutz latz eta arriskutsu zanean, bera ausartu eta arriskatu zan Donostia'n "Begoña" izeneko liburu denda txikitxo bat zabal-tzera.

Oraindik banakak ziran argitaratzen ziran euskal liburuak; lotsati urtetan ziran euskal Pampiñak; aldizkariak be atzamarrekin zenbatzeko eran... eta jakiña, euskal paperekin ogi apurrak jateko aiña irabazpiderik ez, baiña berak, al bestean, lanean ekin eutsan bere dendatxoan, lan ixil baiña baliotsuan, euskeraren garra zabaldu naian, gure izkuntzaren zaletasunari eutsi eragin naiean.

Asieretan antzerki saillean be ekin eutsan eta iru lan idatzi zitun. Eta bere aldi-ko aldizkarietan la geienetan itxi eban bere lantxoan bategaz bere ekiñaren ezaugarria.

Bere garaiko idazleen oitura jarraituz, Garmendia'k iru-lau izenorde erabili zitun. Ala "Jeltzale", "Berrixki" eta zabalten "Zeleta".

Goian bego.

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



NOIZ ERABILLI -TZAZ ATZIZKIA?

Atziki au asko zabaldu zan idazle batzuen artean mende onen asieratik gora. Azkuek gogor egin zuen, bere *Morfologian*, atzizki ori izenekin erabiltzea gaizki zegoela-ta. Orainsurarte ez ornen zuen iñork orrela erabili. Noiz edo bein agertzen ornen da Intxauspe Zuberotarraren *Imitazionian*, pluraleko izenekin. *Eguzkiza* jaunak -tzaz pilla aundia atera ta erakutsi zizkion Azkueri antxiñagoko beste «Imitazionia» batetik artuta (Zuberoko euskarazkoa au ere); baiña guztiak ziran pluralekoak, bat ere ez singularrekorik. Baiña Gavel jaunaren oarra zekarren azkenean: zuberotarrek atzizki ori singularrean erabiltzea ez zeukala gauza eziñeko-tzat.

Lafitte'k dio, berak iñoiz ikusi duela, oraintsu, *euskaraz eta euskaratzaz*, bata bestearen bereizgarritzat, alegia, euskaraz itz egin eta euskera gaitzat arturik itz egitea bereizteko.

Atzizki au gure idazle zarretan

Atzizki au, askotan, -z atzizkiaren ordezkua da, itzaldiaren edo solasaren gaia adiarazteko. Eta emen ez dute lege berdiña erabili Bizkai-Gipuzkoako idazleek eta besteek. Gipuzkoako ta Bizkaikoak olako esaerak *gaiñean* atzizkitzat jarrita egiten izan dituzte. Bestek, aldiz, -z atzizkia izan dute eta orain ere dute ortarako.

Kempis-en itzultzaileak ikustea besterik ez daukagu. Lapurtarretan maiz irakurriko degu: zeruko *dohatsutasunaz*, eta munduko *miserieez*; ez gaizki iuia edo mintza *bertzeez*; guztizia *desordenatuez*. Eta beste edozein liburutan ere berdintsu: *eriotzeaz*, *Meza Sainduaz*, *garbitasunaz*, *pairamenez*, *sakramenduez*.

Zuberotarren liburuetan: egiaren jakitiaz, Jesukristoren *imitazioniaz*, estekamentu gaiztoetzaz, bizite huntako *miserietzaz*, saintien *exenplietzaz*, Jainkuaren amorioak eragiten dituen gauza *miragarriez*.

Gipuzkoakoetan: Bizitza onetako miserien gaiñean, egiaren dotriñaren gaiñean. Eta abar.

Gaiñean atzizki au aspalditik ona erderatiko itzulpen gaiztotzat dago. Azkue jaunak, bere Itzegian, bata beste erdal-kutsuduntzat dauzka.

Gramatikalariek zer dioten

Gramatikalariek zer diote atzizki oiei buruz?

Lenbizi -z atzikiari buruz. Azkuerentzat atzizki onek gaia aipatzen du, *causa material*, lenengo: larrez, mugitaz, askiz, garduz, zalgaz, zoragariz beterik (Peru Abarka).

Bigarren: bidea, *medio*. Betak ogiaz jan. Atzizki au *-gaz* atzizkigaz bat egiten ornen dute (oriagaz jan), eta Gipuzkoan *-kin* atzizkiarekin (Ogiakin jan).

Irugarren (BN, L, S). Izketan zer gai erabilien dan argiarazteko (de, se trata de).

Lafittek diona: Z tzizkiak adiera asko ditu, makillaz jo, gaixtakeriaz egin, zaldiz ibilli, egunaz etorri, sei egunez. Eta azkenez, izketako gaia, *au sujet de*.

—*Tzaz* atzizkiari buruz zer? Azkuerentzat, *-tzaz* eta *-zaz* berdiñak dira, eta «medio» edo «instrumento» esan nai du, baiña izenordeekin bakarrik erabilten da. Izenordeekin eta demostratiboekin: *Zutzaz*, *nitzaz*, *onetzaz*, *onezaz* gaiñean, *azaz* gaiñeti. Euskalki batzuetan *-taz* egiten dute: *zutaz*, *nitaz*.

Lafitte jaunaren iritzi. Gaia, izketako gaia (*questio qua*) esan nai du. Baiña Lapurdin *taz* erabilten dute, eta pluralean *-etaz*. Eta Zuberoan *-etzaz*.

—*Gaiñean* atzizkia ere erabili da iñoiz Lapurtarren artean, baiña, bear bada, ez du gauza bat bera esan nai (Touchant á, á propos de). (Orren gaiñean erranen darotzut).

Bizkaian bada, *gaiñean* onen orde, beste esateko ere bat: Gora beran, Orren edo aren goraberan asarratu dira (ori dala-ta, orri dagokala-ta, dagokionez).

Gaiñean ori, beraz, noizik bein ez da erdal-kutsuduna izango. Erderazko a *vueltas de*, a *propósito de* esan nai du.

Beraz

Len aipatutako esaerak arturik, auxe esan gentzake:

Lapurtarrek ongi jakin dute bakoitzari berea ematen. Singularrean gaia, izketako gaia adierazteko *-z* erabili dute: eriotzeaz. Pluralean *-ez*: miseriez, eta baita miserietaz ere.

Zuberotarrek, singularrean berdin; pluralean, *-etzaz* eta *-ez*: exenplietzaz, gauza miragarriez.

Au danau, atzizki oiek izenekin dijoazenean. Izenorde ta demostratiboekin *zaz* edo *tzaz* aurkitzen degu.

Eta Bizkaia ta Gipuzkoan ere berdin da, gutxi gora bera, demostratibo ta izenordeekin. *Zutzaz*, *nitaz*, *zuetzaz*, *zuetaz*.

Tzaz ez da aurkitzen izenekin Zuberoan izan ezik, baiña pluralean.

Beraz: *gizonaz*, *zeruaz*, *ez gizonatzaz*, *ez zeruatzaz*.

Pluraletan: *gizonez*, edo *gizonetaz* (Zuberotarrez, *gizonetzaz*).

Ezta *gizonaren edo gizonen gaiñean ere*; erakusle ta izenordeekin: *nitaz* edo *nizaz* edo *nitaz*, iru modutara.

Kardaberaz-en esaera batzuk: eskuaz ukitu, fedez egin, fedez jakin, orrez gaiñera, zerbaitez baliatu, salbazioaz oroitu, akorda zaite zure agoniako iru ordu aiez, zer izango da nizaz, pekatari gaixoaz zer izango da, zertzaz arritu.

Gaiñean atzikiatz ongi egindako esaera nere ustez: Baldin beste gauza denboralen *gaiñean* artu emanik izan bada (a propósito de).

EGARRIAK NAGO TA OLAKO ESAERAK

Azterketa gure gramatikalari, iztegiille ta idazleetan barna

1. Gramatikalarietan. Ez degu ezer arkitu gai oni buruz.

2. Iztegietan. Argirik geien azkue-ren iztegiak ematen du.

K-letran onela dio (G..., L..., R...). Se dice con palabras que denotan pasión, en vez del sufijo *-z*. *Otsak dago*, está de frío; *goseak dago*, en vez de *gosez dago*; *egarriak gaude* estamos de sed, en vez de *egarriz gaude* (Azkue, DVEF, t. I, p. 456).

Mujikak ere aipatzen du (Iztegiaren geigarrian, *Afijos Vascos*, p. 1885) -K. 2. con palabras de pasión: Otzak otzez, otzik nago: estoy de frío; goseak, gosez, goserik nago: de hambre; egarriak, egarriaz, de sed.

Esaera oiek noraño edatzen dira Euskalerrian? Azkuek Gipuzkoa, Lapurdi, ta Erronkari izendatzen ditu; baiña noraiñoko zabalera duten ez du esaten Lafittek oraintsu esan du Zuberoan ez dala olako esaerarik oitutzen. Bizkaian ere ez dira ezaguten.

Zein itzekin erabiltzen dira? Egarri, gose, otz, beldur itzekin bai. *Bero ta miñ* itzekin? Batzarrean zan apaiz batek esan zuen berak entzun duela irudi edo irudituak itzerekin: *Irudiak*, edo *irudituak nago*. Laister ikusiko degu nai-kin ere erabiltzen dala.

3. Literatura zarrean. Azkuek ematen ditu bere iztegi Mendibururen esaera batzuk: Beldurra negoen (Jesusen Bihotza, 8, 27); *Goseak dabila* (Otoizgaiak, III, 195, 23). Eta esaera au ematen du Alduden artutakotzat.

Jesusen itzak idazle zaarrenak *egarri naiz* itzultzen dituzte, San Joanen Ebanjelioan. Lengo gizaldian, orain dala ia eun urte, protestanteak argitaratutako Ebangelio batean dator: *Egarriak nago*.

Lizarraga Elkanokoak Koplak izeneko bertsozko liburuan olako esaerak ditu *naiak* itzarekin. Jesusekin diarduala onela dio bein:

Amorezko sutan - or guzia itxekirik,
ni, naiak barinbanago, - erretzeko bizirik (225-garren laukoan).

Eta Jesusengatik dio: Eman-naiak beti dago pobreen konbidatzen. Eman-naiak probreei Jesus emen... (327-garren laukoan).

An onaren kontra dire
guziak, nior fabore:
ala ere nola ai-dire
eman-naiak on kolore! (494-garren laukoan).

Ala ere, Lizarragak Jesusen itzak Gurutzean *egarri dut* itzultzen ditu.

Esan bearrik ez, oraiñagoko literaturan gipuzkeraz maiz erabiltzen dala esaera au. Ona emen oraintsu argitaratu dan Txirritaren liburuan, *Auspoa* liburu-saillean:

Ardi gaiztoak paotxa jaten (daude),
onak *gosiak* lanian. (p. 112).

Nondik nora esaera oiek? Badirudi emen aditzen baten utsunea degula, *constructio praegnans* esaten dioten oietakoren bat. *Goseak il, egarriak ito*, goseak *amikatu, argillatu* ta olako esaerak zabal dabilta beste euskalerrietan. Goseak jo, otzak artu edo olakoren utsa dagoela esan genezake, *loak artu* ta esaten dan bezelaxe.

Esaera jatorrak dira, noski; baiña ez, bearbada, jatorrenak.

Lino Akesolo

IRAZKINTZA

EUZKERA TA EUZKAL-BIZIA

Oso argi dago ta guztiek dazagute euzkera ta euzkal-biziak duten alkartasun ertsia; euzkal-bizia euzkeraz azaldutako bizia baita, ta euzkerak bizi o i bere nolakotasuna ematen diolako; Euzkal-E i'ari ta euzkaldunari berena ematen dien bezela.

Baña ezinbestekoa dala deritzaigu esandako alka rtasuna ondo ikustea ta ongi ere aztertzea, bertan dagoen ga antzi aundia nolakoa dan jakiteko, ta euzkaldun guztien aldetik ortaz ezmezik izan ez dedin, aitzitik guzia ondo ateman ondoren norberaren jokera bea dan bezela eraman eta, noraezean, zuzentzeko ere.

Bidezkoena izango zaigu, asieran, euzkal-bizia zer dan edo nolakoa dan begiratzea, ta geron ustez guztien aldetik onela edo age erazi diteke: euzkeraz egingdako bizia, euzkeraz azaldutako bizia, agerpen guztietarako, gogo- izarian noski, euzkera berez erabiltzea. Eta guztion aldetik ongi ta sakon begiratu, zaindu ta indartu bea da.

Naiz eta, o ela, asmoa ondo adierazita egon, bea ezkoa zaigu bertan sakontzea ta ortaz ikus ditezken azpegi guztiak age eraztea. Begira dezagun: euzkera erabiltzea, lenengoz, euzkeraz itzegitea da, izkuntza guztietan bezela, gurea ere itzak oguzten eta erabiltzen azaldu zalarik. Itzak izan ziran lendabizi, ta gero ere mendeetan barna, gizonak alka i mintzatzeko ta beren barneko asmo ta oldozpenak alka i ere adierazteko beren bide egoki ta beafa. O a itzen lenengo betekizuna.

Urteetan barna, gero, itzak iku en bitartez adieraztea otu zitzayen gizonai ta afezkero itzak bela ien bidez mintzatzean, eta begien bidez idaztean, nun-nai erabili zituzten. Ba-ditugu o ela, bi betekizun bereziak itzetarako: itzegitea ta idaztea; jakiña itzegin ezkerentzuten da ta, ondorioz, itzak entzuteko ere erabiltzen dirala argi dago. Baña ba-dugu beste betekizuna itzak erabiltzean eta onegaz ez da asko mintzaten: oldoztea, ta baitezpadakoa zaigu o ezaz be arizatea.

Edonork egiztatu dezakenez, gure oldozpenak eratzeko, naiz eta oyek motzak izan, itzak darabilzkigu guztiok, oguzten ez diran itzak jakiña; ezin oldozpenak izan itzak erabili gabe. "Itzen bidez oldozten da" idatzi zuen bein Unamuno'k; eta ortxe dugu itzetarako beste betekizun berezi bat, ga antzi oso aundia duena. Eta guk onela galdetu dezakegu: nolako itzak dira gaur euzkaldunok gure oldozpenak egiteko darabilzkigunak?; zalantzik ez onela erantzuteko: erdal-itzak; euzkeraz idazten dugunok ere berez, erdal-itzak darabilzkigu oldozteko, ta ezinbestekoa zaigu o ela egitea; ona emen zergatik:

Ezagupenak lortzeko egin ditugun ikasketak erderaz egin ditugu, ortarako Frantzia'k eta España'k eraginda; ondorioz ipa aldean prantzeraz eta egoaldean españeraz, irakasteko ta ikasteko bidez erabiltzen diran beste izkuntza guztiek dagitena betetzean, ots, bakoitzak bere gogoan, erabiltzen dutenai barne-barnernaño sartzean; orixe da iñoiz peitzen eztan ondorio bea a. Geuk, ipa aldekoek

erdera bat eta egoaldekoek beste bat, erdera dugu jaun eta jabe gure baitan, bere jokuak biuriurik.

Orixe dugu, enurarik gabe, gure gogo-joputasun aundiena, ta ori oarizean argi agertzen da gure gogo-azkatasuna lortzeko zer egin bea dugun; bea -bea a zaigu ontaz ebazkizuna garbi-garbi ikustea. Jakiña gure gogo-azkatasuna Euzkadi'ren gogo-azkatasuna da erabat, bizi nai-izan ezkerero zearo lortu bea dan benbenetako azkatasuna. Ta o eraño eltzeko bidea ere argienik agertzen zaigu zein ote dugun.

Bai, euzkaldunok azke izateko, euzkeraz oldoztu bea dugu, berez. Baña euzkeraz oldozteko, ezinbestekoa da gure irakaskintza guziaz, lenengo ikastolatik Ikastola Nagusi'raño euzkeraz baka ik eman eta artzea, ta orduan loriuko du euzkerak, ikasteko erabiltzen diran izkuntza guztiak egiten dutena, ots, bere gogo berezia beraren bidez ikasiko dutenai barneraño sartzea; ta o ela, () ela baka ik, ikaste osoa burutuko dutenek euzkeraz oldoztuko dute, berez eta gai guzietarako. Ta o ela jokatzean, o ela ere baka ik, gure E i'ak erdal-joputasunetik bizi al-izango da azko. Ez dugu iñoiz aitzu bea orixe dala Ludi ontan ikasteko erabiltzen diran izkuntza guztiak egiten dutena, bakoitzak ikasteko erabiltzen dutenai bere gogo berezia sartzea, beren bizi guzirako nai ta nai ez erabili bea -izango dutena, ta eziña izango zaye geyenei ortik ateratzea. Gaur gurean parantzera erabili bea ipa aldean eta españera egoaldean, eta ondorioz batzuek parantzeraz oldozten dute ta besteak españeraz; euzkeraz irakastean baka ik lortu al-izango da euzkaldun guztiak euzkeraz oldoztea. Ortxe gure elburu nagusia, oreana dana, oreana izan bea baita E i'arena izateko.

Bai, euzkaldunek, berez, euzkeraz oldoztu bea dute, ortarako alperkeririk gabe jokatzean; eta zerbait egiteko, ez dute joan bea etxetik at iñora, beste tokietan zer egiten dan ikus eta ikastera, berbera egiteko xedeaz. Ori jopu-gogoa izatea baita. Eta, esan bea ik ez, guzti ori iristeko, e iketari buruzko gure burujabetasuna, gure azkatasuna bea -bea a izango zaigu lortzea, ta azkatasun ori guretzat lenengoz elburua izango zaigu, gero, gogo-azkatasunera eltzeko, bide bea a, bide egokia izan dedin.

Oso u utian dago gaur elburu ori, noski; baña elburu ori ondo ikustea izango da gure lenengo u atsa, baitezpadakoak izango zaizkigun beste u ats guztiak beti norabide onean emateko; biga en u atsa auxe izateko: euzkera beti eta bear dan bezela erabiltzean, ikasteko diran gai guzietarako ikas-idaztiak gertutzea, bere orduan eta irakaskintza osoan erabilia izan ditezen. Elburu ta bidea argi argi dagoz, euzko-abertzaletasunak bea dan bezela joka dezan.

Orixe da len esan dugunez, Ludi ontan ikasteko erabiltzen diran izkuntza guztiak egiten dutena, bakoitzak, ikasteko erabiltzen dutenai bere gogo berezia sartzea, beren bizi guzirako nai ez erabili bea izango dutena, ta eziña izango zaye geyenei ortik ateratzea. Gurean parantzerazko gogoa erabili bea -izan dugu ipa-faldean eta españerazko gogoa egoaldean, eta ondorioz gure arteko batzuek parantzeraz oldozten dute ta besteak españeraz.

O ela ta gaurkotz ezinbestean erderaren joputasuna jasan beaf dugu guziok, eta ortik ateratzea izango da gure azkatasuna; ortaruntz zuzendu bea -izango ditugu gure u ats eta alegin guztiak, noizpait gure E i'ak bere burujabetasuna zearo ukan dezan. Lan ortan guztiok sartu bea dugu; euzkera ikasten eta erabiltzen ez duenak E i'aren ondarena egiteko laguntzen du; euzkera ez jakitea norberaren zoritxa a da baña ez berarena baka ik, abe iarena ere orixe da, zoritxa a, ta abe iaren zoritxa oren yardespena euzkera eztakiarengan dago ia oso; ta ez dugu aitzu bea Euzkadi ez dala azkatuko gizon batek egin dezakenaz baka ik, bere seme guztiak egingo dutenaz baño.

Ez aitzutzeko be gurean ebazkizun aundiena biziarena dala, euzkal-biziarena, ta bizi o i eusteko euzkera ezinbesteko bidea dugula; beraz, euzkera da gero ta geyago erabili bea duguna, gero ta sakonago ikasten, gero ta geyago indartzen

eta zabaltzen. Ori egiteko ta, len esan dugun bezela, guzirako euzkeraz oldoztu bea dugu guziok ere, berez.

Eta izkuntza au eratuenak gogo-lantzeari buruz egin duten guzia, geuk euzkeraz egin bea dugu, gure euzkal-gogo-lantzea burutzeko, bazte guztietara osoa zabaltzen, lenengo irakaskintzan asten eta yakintza guzietan barna edatzen. Zoritxa ez gure e ita en artean eztago irakurtzeko zaletasun aundia ta ori ere piztutzea bea -bea a izango zaigu era guzietako ikasketak egin al-izateko.

Len esan dugun arauz euzkera erabiltzeko, bera dan bezela artu bea -izango da; e i-euzkera aintzakotzat artzea ona izango da beti, baña ez bere osotasunean artzeko, gaur erderaz oso kutsututa dagoelako ta erderakadaz beterik erabiltzen dalako, euzkal-itx, ainitz, bazteriurik geratzean. Ba-dirudi euzkera bera dan bezela artu bea dala esatea peíokeria dela, baña bea ezkoa zaigu ori, ta o ela jokatzeko euzkaldun guzioi bere eliztia ikasi ta ondo ikasi ezin bestekoa zaigula ere.

Ez dugu auxe aitzu bea : euzkeran sartzen dan erderakada bakoitza, erderari lotutzen gaituen katearen elaztun bat da; onezaz be gogoratu bea dugu, gaur guziok erderaren jopuak gerala, ta erderaren jopua izatea Frantzia ta España'ren jopuak izatea dala. O a euskara batuaren ja aitzafeak ere aortu bea dutena. Guzti o engatik iru betekizun duen ditugu lenbailen burutzeko: Irakaskintzaren gai guzietarako ikas-liburuak gertu, okef guztiak zuzendu ta erderakadak baztertu: auen ordeiz itz jato ak erabiltzeko ta bea ak izen ditezken itz beiak euzkal-oña iz eratzeko.

Ba-dagoz gure Efi'an amaika azpegi zuzendu bea ditugunak eta apaltasunez aitortzea ona izango zaigula. Ona emen, geron ustez, ga antzi audikoak diran iru auk:

Lenengoa: Anayarenganako go otoa so erazten duen aye berezia.

Biga ena: Euzkera ta gogo-bizi ta gogo-lantzearekiko zabarkeri aundia.

Iruga ena: Erbestetik datorkigunari amor-egiteko e aztasun geyegia.

Oyetatik eta guztietatik garbitu bea dugu gure burua, beti duintasunez ari-izateko, ta zuzentze ortarako bide egoki ta bakafa euzko-abertzaletasuna da; beraz abertzaletasun oek ari bea -izango du eten gabe gure euzkal-biziari eutsi al-izateko. Eztago, geron gardiz, beste biderik.

Euzkera dala-ta eztakigu nola ta nundik sortu zaigun; ba-dirudi gogo-lantze aundi batean eratu ta sakondu edo zala, baña ezin eskiertasunez ori jakin eta ala izango ezpalitz ere gaur bai, gaur euzkal-gogo-lantze berezia sortu ta sakondu bea da euzkera ta gure Efi'a be bizi-izaten ja ai al ditezken. Gure izkuntzaren aberastasuna oso aundia da lan ede ori burutu al-izateko; beraz gure naya da baka ik jokoan ari bea duena.

Beste aldetik onezaz ere gogoratu bea dugu: Euzkera, egitan, ez da gurea baka ik, gizadi osoarena baño, ta gizadiari buruzko gure eginbidea bera zaintzea dala ikusi ta onartu bea dugu geuk, euzkaldunok.

Benetan guzia da euzkera guretzat; berak eman dio izena E i'ari, "Euzkal-E i", ots, euzkeraren Efi'a, euzkera duen E ia; orobat gizonari, "euzkalduna", euzkera duena, euzkera mintzatzen dana. Ba-dirudi, o engatik, euzkera, gizona ta E ia baño au ekoa dala, ta o ela izan ezkeru, nungoa eta noizkoa da gure izkuntza au? O a eskutuki aundia.

Eta amaitzeko, guziaren ondorioa bezela, egi au ira i nai-izango nuke, suzko itzen bitartez, euzkaldun guztien buru ta biotzean: Euzkadi'n eta Euzkadi'rentzat erdera eriotza da ta euzkera bizia.

U estarazu'ta Andoni



AMA EUSKERA

O, euskera maitagarria! Zuri nai dizut eresi! Oso aurtxoan nintzala, oraindik seaskatxoan nengoala, Ama laztanaren aoz sartu ziñan nire biotzean, ta ordutik neure biotzean zauzkat (Domingo Agirre).

Eunki ez jakiñetatik, aintzin-aintzinatik euskoen gogoa izan zeran Ama Euskera, zer gertatzen zaizu? Nun dira ain bizitaldi luzean sendo ta gazte iraunarazi zizuten adore bizikorrak! Nun dira, bai! Gaur, ama gajo ori, mazkal-samar zakusgu, ta eriotz aurreko aztarna itzalak, zure aurpegi zurbillean, naigabe samin-samiña dagerte... Zer dala-ta? Ai! Ezta zure erruagatik! Indarge ta auldurik bazaude bada, gu gera, gu, zure semeok obendun, zu ez. Gu, bai gu besterik ilzori orretan bakar-bakarrrik utzi zaitugulako, bizitz sendora zu erakartzeko alegiñik ez dagigulako izape bizigarria ukatzen dizugulako, itz batean, maite ez zaitugulako...

Zure semerik aberatsenak, erri nagusietan bizi geranok eta geien lagundu bear genizuketenok, bazterturik utzi zaitugu... gauza ezerez bat baziña bezelaxe; ta zuk, errukarri orrek, basamendietako bakardade itzaltsuaren naigabearen naigabez errokitzen, esku maitekorren laguntza eska diozularik, otoi dagiozu Jaun Altsuari: "Etzaizala, arren, semerik gabe utzi... Baiña, guk, ala ere, errukigaitzak gera-ta, eztizugu, zure gaxotasuna senda al izateko, gure biotzaren zati maitekorrenean babes berorik opatzen; ta, or zabilta, gurutz-biderik neketsuenean goruntz, bizi al izateko, semerik apal ta beartsuenean etxeetan biltzen zeralarik... Auek ere ordea, zure zartzaroak, zure ezereztutzeak bear dituan arretak aundiak eta oso neketsuak dirala-ta, eskerbagekeri zabarrenez baztertzen zaituzte. Ta, Au bai zoritxarra!, etxerik-etxe, aterik-ate, abegi onaren billa ibiltze orren nekaldia, etzaizu amaitzen. O, zein ibillera negargarria, zure ori!

Zein nekaldi samin-garratza, daramazun au! Jauregietako atepak, ate arroputzak aspalditik dituzu; erri askoetako etxeetan ere, ez dituzte zure laguntz -eskazko adiak entzuten, ta geroz ta geiago dituzu, baserrietan bai-ta ere, aintzakotzat ez zaituenak artzen.

Toki geienetan biotz-gogorkeria, baizik ez daurkizu. Ta doakaz ibiltze orrek, zure bizitz urtetsua oso makaldurik, azken egunetara eraman zaitu; eriotz-illunda, amilka ta astun, gaiñera datorkizu... betikotasunaren sakonpe ulerkaitzean, zure gogo ilkor-eza, gure artetik edazturik, beti-betiko ondatzera... beti-betiko! Azkenetan zaude bai; arnas-estu zotinka; zure mintzurra bada, menditar bakanen ezpanetan amaitzen doalarik, oartzun itzalak, mindun negarti, oguzten ditu;

"Heuskara, ialgi adi kanpora".

Beñat Etxepare izan zan euskerea plazaratzeko, dei aintzagarri ori euskaldun-goari luzatu ziona. Aldibera, bakanki, idazle bat edo beste izan dira, biotzeko ederrik ta giartsu elertiratu izan dutenak. Euskerea edatu ta goimallaratutzea gu, euskaldunon eskuetan dago. Lendik dakigunez, "lan egin bear, biotz eta gogoz, lan". Ziur gaude, gure ele maitagarria, ezagutzen diranen artean aurrenekoa (Emiliano Mujika, "Euskal Esnalea'n), zergaitik izan bear du izkeraz laburrena ta

arloteena? Ereski ta joskeraz beste iñoren antzik ez dulako? Orregatik sayatu euskaldun guziok, ikasi ta erakusten al degun guzia. Zaina dalako? Zalla dan guztia, beste gabe utziko ba'litz, Jaungoikoak gizonari emandako almen ugariak alperrik giñuzke, gaitzerako ta griña makurretarako bakarrik bear izate ezkerro. Euskaldunai, ezaguera argia eman zigun, iñori eman ba'dio; ta geren zabarkeriz utzi bear itzaltzen argi ori? Euskaltzaindia, Euskal Esnalea, Eusko Ikaskuntza ta, abar, oraindik berriak, mutiko gazteak besterik ez dira; baiña oñez ikasi dute ta noranai joateko ez dute besteren esku bearrik. Oyek lan asko egin lezakete ta egingo dute". Aurrez-aurre begiratzten diote etorkizunari, ta naiz laño mordolloz estaliak egon aurrera bideak, jakingo nondik joan, ondoren laguntzen ba'diegu". Laño mordollo oyek ez dira besterik, geren arteko zabarkeri ta gorrotoa. "Gorrotoa bai, euskerari gorrotoa dieten euskaldunak ere, gezurra dirudi, baña, ba'dira". "Euskalerriko biotz-biotzean jayo, bertan bizi, ta alaz ere euskerazkoak diralako egutegiak, asteroko ARGIA, euskerazkoak diralako beste gabe, amorrus puska-puska egin eta sudara botatzen dituztenak". "Oyentzako, irabazitako biraurik ez diet botako; nola ordea euskerak biraurik ez badu?".

Bakan oyek, beren gorroto ta guzi baño, beste askoren arteko zabarkeriak kalte geiago egiten dio euskerari".

Baña, aldiz-aldiko eragozpen ta neke guztiak menperatuz, euskereak aurrera dagi ta bizirik dago. Beraz, Arrese Beitia'k olerkariak idatzitakoa ar dezagun gogoan ta, abestu biotzez:

BIZI DA EUSKERA

"Neure anaiak, bat izan beti
Euskeldun siniskeratan.
Bat izan geure uste, eretxi,
Gogo eta asmuetan,

Fede bizi bat baldin ba'dogu
Biotz, eta arimetan,
Bakez oraindik biziko gara
Mendi, atx eta ibarretan".

Euskaldunok antza danez auzo zaleak gara, esakun zar batek diñonez: "Auzoko intxaurrak ots aundi" ta oldozkera orrekin auzoko otsetara, auzoko erderatara makurtuta bizi izan gara txepelkiro ta makal, nagusitu zaizkigun etsaien oinpean buru-makur, geurea zaindu ta goratzeko bildur aundiz... Zer dala-ta txepeltasun ori? Elorza jaunaren Euskal-Egunetako itzaldi batean onela mintzatu zan: "Jakintsuak garbitu ta edertu dezatela gure euskera. Baña, zeriarako garbitu ta edertu, edertu ta garbitutakoa guk erabilliko ez ba'degu?

Egiteko aundiena, lanik bearrena, gurea da, jakintsu ez geranena. Zer lan da ori? Itz batean esan liteke: itz egin, euskeraz itz egin... ez geldirik utzi; ez aztuta bazterrean utzi: mintzatu, erabilli.

Bide ertzean aztuta utzitzen dan arriari zer gertatzen zaio? An egoten da geldigeldi; azpia zomorroz betetzen zaio, ingurua belarrez, gaña zikinkeriz. Ta, dabilen arriari ez al zaio ori bera gertatzen? Ez. Begira errotako arriari. Beti jiraka dabil, ez da gelditzen eta garbi, dizdirati egiten da. Ura ez da zikinduko, arek ez du zomorririk, ez du belarrik. Zergaitik? Dabillelako; gelditzen ez dalako. Potzuko urari, zer gertatzen zaio? Egonean egonean, usteldu egiten da. Eroritzen diran txotxak, lur-puskak, eta ostoak, an gelditzen dira ura zikinduaz. Kolorea aldatzen zaio... Nazkatu egiten gaitu ilda dagon urak. Eta dabillena? Begira an goitik bixibixi datorren errekatxoko urari... Ez da beztuko ez da ustelduko, etzaio usairik egingo. Zergaitik? Dabillelako, gelditzen ez dalako.

Arria ta ura bezelakoak dira gauza geienak: ez usteltzeko, ibilli egin bear dute: ta ori gure lana da, euskaldun guzien lana. Euskera maitea degula esatea, zabaltzeko au ta bestea egin bear litzakela esatea, alperrik itz egitea da: Itz eta itz egin ori bear da.

Aspaldi esan zuan gure Axular zarrak: "baldiñ egin balitz euskaraz anbat liburu nola egin baita latiniéz, prantsezez, edo bertze erdaraz eta izkuntzaz, aek bezaiñ aberats eta konplitu izanzen zen euskara ere ta baldin ala ezpada, euskaldunek berek dute falta, ta ez euskarak". Euskera ez dago atzeen, euskaldunok bai geron izkuntzan. Izkuntza zer dala iduri ote zaio erderazale gizagaxo orri? Izenpil ugariago, urrigo izatea? Ala litzakelarik. Nonbait legoke areik darabilzen erdera! Besterenetik ariu-itzak erantziko ba'dizkiogu, soil da gorri geldituko da euskeraren aldean, eta besterenetik beretzez zillegi ba'zaio, ez al lezake berorixe egin, euskerak ere? eleiz-juale pitzatutako batzuek, beren danbadaren samiña aize zabalera edazturik, zure eriotza adierazten asi balira bezelaxe...

Itz minberatsu, egiti ta tamalgarri, itz gordin ta kezkatu auek Karraskedo Olarra-tar J. jaunak idatzitakoak dira (1926) gko EUSKAL ESNALEAN. Orixe izan bai gure euskeraren egoera larria baiña eusko seme bioztunak bizirik atera dute ta gaur egun Euzkadi bere Jaurlaritza, ikastola eta abar, bere burujabetza lortzen ari da-ta bide ontatik jarraitzen ba-degu etorriko da bai Euzkadi Euskal-Erri biur-tuko dan egun zorionsu ta eder ori. Beraz, gure eskuetan dago ta ekin daiogun lanari etsipen gabe aitzakirik gabe, Enbeita-tar Balendin esaten eban lez:

ATXAKIRIK EZ, MESEDEZ!

"Esaten dabe: Euskera oso
gatxa dala ikasteko.
Euskera egiz maite dabenak
ori ez dausku esango;
langille txarrak atxaki asko
beti dauka lanerako.

...Eta Enbeita'k jarraitzen dau:
"Besteak beingoan ikasten dabe
ikasi nai dabelako,
beste batzuk nagiatatik
itzi oi dabe geroko.
Gauza bat orain gogoan artu

egi aundia dalako:
Gure euskera bear bagendu
ogi zuria jateko,
aundi ta txiki, zar eta gazte
danak leukie ikasiko".

Euskera gatxa, gatxa dala ikasteko? Gauza jakiña da, lan eta ikasketa guztiak erreztutzeko beiña dala zaletasunez eta atsegiñez lan egitea ta ikastea... Benetako gogo biziaz".

Alan ba, bardin jazoten da euskerazko ikasketakaz: erreztu gura ba'doguz gogoz eta biotzez alegindu bear gara ikasteko.

Gañera, iráunkorra izan bear dan lez euskera naiz beste edozein gai menderatzeko, gogo orrek eta gurari orrek iraunkorra izateko indarra emoten dau... Bear -bearrezkoa dan indarra, ba iraunkorak ez diranak beingoan ikasten ez ba'dabe, euskera gatxa dala esaten dabe, ta ikasteari agur egiten dautsoe.

Ezaguna da 3 bide-zaiñen gertaera edo jazoera: askok dakizuenez, len erri askotan esaten zan bidezaiñak geienetan gerizpetan egoten zirala bero egiten ebanean, eta aterpean euria egiten ebanean.

Egun baten baserritar batek 3 bide-zain ikusi ebazan arri bat bide erditik er-tzerantza edo egalerantza eroan eziñik.

Bide-zaiñen ganorabakotasunagaz konturatu zanean, baserritarrak esan eutsen: "Itzi neuri, mesedez"... Eta arria artuta egalera eroan eban. Orduan bidezaiñek esan eban: "Arraio!... Indar egin ezker, edozeñek". Or dago untzea: indar egin bear! Alegindu egin bear! Eta askok indarrak ez dau gura egin, ez bearrerako, ez ikasteko.

.. •

Bilbao'tar JON ek, "ZER" aldizkarian.

Axolagabetasuna alde batera utziz, eragozpen oro gainduz, euskereak aurrera dagi etsaiaren biurrikeri ta maltzurkeri oro dezabatuz. Aurrera dagi bide barriak egin ta egokiagotuz, ibilbideak errezagotuz euskerea danok opa diogun gallurre-ra eldu dedin.

Bizi-ale ederrenak aukeratu ta euskal alorra atxuriu ta azi ona ereiten alegindu ziranak eundaka asko ez diranarren, bai zintzoak ta agurgarriak, ben-benetan eredugarriak.

Maitasunezko zenbat bertso eder burutu eta abestu izan diran gure euskera-ren barruti alor betirakorrean! Zenbat biozkada maitagarri!:

Ona ba, emen, B. Etxegarai'ren neurtitzak:

"Euskaldun gara eta beti nai degu izan;
Zergatik Euskaldunjaio ta azi geran,
Euskaldunak garala beldur gabe esan,
Eta Euskara gatik gure odola eman".

Etxeita-tar Joseba Imanol da orain gugana:

"Euskeraz entzun neban jaiio nintzanean,
Anboto'mendiaren beko barrenean;
Euskeraz dantzut beti nik orain artean,
eta daukat sartuta neure biotzean.

"Ekin bada euskeraz, euskotar maiteak,
jarraitu dagiguzan asaben bidiak,
Erbestian eztagoz ekandu obiak,
Bake ta pozgarrizko begiak".

•

Aita Atutxa'k ere berea:

"Ene euskera, ezagun dan
izkuntzarik zarrena,
ez dedilla amaitu zure
itz-jario gardena".

Eta, ona emen zer dion bizkaitar Enbeita-tar Kepa "Urretxindorrak":

"Ikasi daigun erdera, frantsez,
naiz ingelesen elia,
ikaste ori ontzat daukagu,
baña lenengo geuria,
Izkuntza danak gurgarri dira,
autortu nai dot egia;
guretzat, baiña, gurgarriena
euskera maitagarria".

Pello Mari Otaño ere ezin degu baztertuta, aitatu gabe. Euskeltzale ta bertsolari ospetsua. Ona emen:

ZAZPIAK BAT:

"Ama Euskera: Bere semiak
gu Ameriketari, zenbat
arkitzen geran! ta urrutitik
maiteago degu ainbat;
emen ez dago Bidasoa'rik
ta beste trabik an ainbat.
Ama maitia indartu dedin,
bizi bedi "ZAZPIAK BAT".

Eta, nola aipatu gabe utzi Agirre'tar Joseba Mirena gure Lizardi-tar Xabier aundia? Olerkari liriku aundi onek gure artean oraindik ez du kiderik. Tamalez gazte-rik il zan.

ORO MINTZO

"Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aumat ere noranaikoa:
jakite-egoek igoa;
soña zar, berri gogoa,
azal orizta, muin betirakoa.

Euskaldunok: ez dezagun bada, gure berdin gabeko izkuntza, mintzo aberats ta eder au, ez dezagun gure alperkeri ta nagikeriz eriotzaren leiza-zuloan amiltzen utzi. Ekin lanari ta, itz egin eta erabilli eguneroko aitu-emanetan, bestela sits-janda, erdoituta edo ugertuta, errukarri or geldituko da, gure biotzeko maite-tasun, sugar bizi, argikoi ta, edergarri ori, bideratzen, sentiarazitzen ez ba'degu. Beraz ekin bizi ta sendo, euskal biotzak irabazi ta euskotarizen.

Norberaren gauzak zaintzen ez dakianari etxe-kalte esaten zaio. Beraz, etxe-kalte izan ez gaitezten zaitu dezagun gure altxor ori. Izkeria erriarentzako guna, barru-barruko mamia da. Mami ori, guna galdu ezkeria euskereak ez du iraungo, ill egingo da. Euskaldunak bada, iraun dezagun, ill ez gaitezten, zaitu, goratu, edertu, erabilli dezagun gure euskera. Etxean ta kalean, nun-nai erabilli bear da erdoituta, ustelduta, sitsak janda eriotuta ikusi nai ez badegu. Beraz euskaldun izena daraman orok erakutsi egin bear du duin dala, euskerea bide onetik eraman, zaindu, goratu ta edertuaz. Olazar'ek "ZER" aldizkarian dion bezela: "Norberaren erria maite ez dauanak, ezin maitatu daikez beste erriak".

Biotz oneko semeak izan euskaldunok!!

Errenderia'n 1989

Muniategi'tar Sabin

GIZARTIZTI

OGIBIDE TA LANGINTZAK II

MERKATARI

Bizkai eta Gipuzkoari nekazariak beti izan dira gutxi; sekula ere ez bear-aiña. Jatekoak kanpotik ekarri bear. Orixe, merkataritzaren lana. Merkataritzan oiñarrituak sortu ziran Orduña, Balmaseda, Ordizia, Tolosa eta beste zenbait erri-billa.

Araba eta Nafarroak eurentzako aiña jateko izan dute beti. Olio, ardo eta garri izan dira eurentzako sal-gaiak. Irurak dira erromatarrek gurera ekarriak.

Nafarroako bideak egunetik egunera seguruagoak. Santiago-bidea batez ere. Bide orretatik eldu ziran guregana, erromesekin batera, ainbat a riista eta merkatarari. "Frankoak", geienetan gaskoiñak, izan ziran bide orren luzaro guzian sustraitu ziranak. Merkatarari ziran eta feri eta azoketarako fuero bereziakin etorri ziran. Iruñako San Zernin eta San Nikolaseko frankoeri eman zitzaizen Baraiñ'en merkatu egiteko eskubidea; baita Santiagora bidean zijoazten erromeseri gauzak saltzekoa ere, beste gaiñontzeko euskal-merkatararien kaltean...

Estella zan merkatu-erri.

1256'an Alfonso X'garrenak astearteetan merkatu egiteko baimena eman zion Salbaterrari, "Gazteiz'koak duten erara".

Merkatu egiteko baimena Erregeak eman oi zuan. Asteerokoak ziran merkatu oiek. Feriak, berriz, urteerokoak. Sal-erosketak askatasun osoan egiten ziran, petxarik ordaintzeke.

Bizkaiko Fueroak (Tit. 1, L. 105) onela dio: "bizkaitarrak aSke eta libreak izan bitez edozein merkagai, naiz eunak eta naiz burniak, erosi edo saltzeko".

Gaskoiñekin batera agertzen dira gure artean judutarrak ere, merkataritzarako lekuri egokienak aukeratuaz. Iruñatik Tudela'ra dauden erri garrantzidunak guztiek dute beuren judeo-taldea. Oietako taldeak ezagutu zituzten Arabako zenbait erriek ere. 1296'an Alfonso X'erranak judutarrentzat kale berezi bat jaso zuan, merkataritzari aupada bat emateko asmotan. Gebara erriak ere bazuan bere judatar-taldea.

Balmasedan ere bazan talde bat. Baiña, Gipuzkoa eta Bizkaian judutarrek ez zuten interesik ikusten. España eta Portugal'etik bota zituztenean, Baiona'ra jo zuten, St. Sprit deritzan auzora. An dute euren sinagoga eta illerria.

Nafar errege Santxo Ramirez'ek gaskoiñak Nafarrora ekartzea, ez zuan ondo ikusi Gipuzkoak eta ori izan zitzaion Nafarroatik alde egiteko arrazoirik aundiena. Ez zitun ez-eta mairu eta judutarrak ondo ikusten eta oiekin naasteari eragozpenak jartzeko, onela dio bere Fueroak (Tit. 41,C.1): "ez dezala orrelako jenderik bere egoitza Probintzian egiñ". Bizkaikoak areago (Tit. 1,L.15): judutarren batek, Bizkaian bizitzeko Erregeak emandako agiria baleuka, "onartu dedilla, baiña, ez dezala iñork bete", "sea obedecida y no cumplida". Alaz ere, Araba eta Nafarroan judutarren lanak sendotu eta oiñarritu zun merkataritza guzia.

Kostaldean, kaiak ederrak; baiña, merkagaiak falta, Somorrostro eta Arditurriko meatzak izan ezik. Lana gerorago ugarituko zan burni-meatzak obeto ezagutuak izan ziranean.

Donostiak bere asieran zitun merkagaiak auek ziran, bere Fueroak zionez: burnia, artillezko eunak, oreiñen larruak eta konejuenak. Fuero ori berbera zabaldu zan kostaldeko erri guztietan eta beuren kaien Araudi gertatu zan, Barzelona'ko "Llibre del Consolat del Mar" eta Araudia baiño eun urte aurretik.

Geroago agertu ziran Donostian, Europako lfar-alderuntz bideak artzeko, Kastillako artilleak eta Aragoiko ardo-olioak. Oiekin batera burnia eta arrantzuak (bakaillaua eta bale-koipea, batez ere).

Hermandad de la Marisma'ren pare sortu zan lfar-aldeko itxasoetan "Liga Hanseatica" zeritzan elkartea. Ortik eta onera, XIV eunkian asiko dira gure kaie-tan Hansa orren barkuak agertzen. Ortik datorkio Donostiako Esterlines kaleari bere izena. Hansa orrek gana, eunak, salazoa, Baltiko'ko "ambar" (lupe-lerdo) eta beste lfar-aldeko generoak, ekartzen zitun gurera. 1388'an bretoiñak dabilta gurean merkataritzan Donostia'ko Araudi batean agertzen danez.

Baiona eta Bilbo nor-geieagoka dabilta Donostia'rekin. Bermeo'n ere bazan kai eder bat; baiña, merkataritzaren nagusitasuna Bilbo'ra pasa zan XIV'garrenetik aurrera. Frantzia'ko lurralde askotako jeneroak Baiona'n ontziratzen ziran, edo andik Andaluzi eta Ameriketara iritezko. Ordainketak, berriz, diru espainoletan egiten zan (Ameriketako urreak). Nafarroatik ateratzen zan artillea Frantziako euleak lantzen zuten geiena. Kai guztiak zeuden artille oien gose.

Tolosarrek bazuten eskubide xehe bat 1285'tik aurrera eta auxe da: 'portu legorra' zan Tolosa eta beregandik igaro bear zuten, nai-ta-naiez, Nafarro eta Aragoi'ko merkagaiak gurera zetozenean. Fernando Erregeak Nafarroa artu zuanean, Donostiak artillen petxak jaso zitun eta, orduan, artilleak Baiona'ko bidea artu zuten.

Aro-Berrian (Edad Moderna) zear giputx eta lapu rtarren arteko itunak asko izan ziran eten-gabe, naiz-eta Espaiña eta Frantzia alkarrekin burrukan ibilli. Onela dio Gipuzkoako Fueroak (Tit. 19,C.4) koipe eta bitualleri buruz: alkarren arteko itunak zituztela gerra guztien azpitik edo gaiñetik.

XVI'garrenean askotan aitatzten da Bizkaiko portuetan sartzeko askatasun osoa bituallakin zetozten barkuentzako, naizeta ontzi oien nazioekin burrukan ibilli. 1537'ko azaroaren 17'an, Kastro-Urdiales'en, alkarren arteko merkatuko artu

fedez eta pakean ibiltzeko ituna egin zuten Kostaldeko Lau Erribillak, Bizkaiko Jaureria (Señorío)'k, Gipuzkoako Probintziak, Labort'eko Lurraldeak, Baiona'ko Uriak eta Cap-Breton'eko Baroniak.

Merkataritzan garrantzi aundia du pisuen neurri onak; falsorik, ez. "Si quis falsam mensuram, vel pesum..." (Estellako Fueroa: I, 11). Oiarzun'go Araudiak ere aitatzten du pixuak eta neurriak ondo dauden aztertzeko daukaten gizona. "Ala konbeni bait da, saltzeko eta erosteko neurri segurua egon dedilla, engaiñurik gabe". (Fueroa, Tit. XX, Cap. II).

ZERGA edo PETXAK

Gipuzkoak Erregeari ematen zion zerga "alcabala" zeritzan; beste eskubide guztiak ukatzen dizkio. (Tit. 28,C.1). Gipuzkoak ez zitun era onetako zergak ordaintzen: "fonsaderas, servicios, pedidos, ayudas eta monedas". Ez-eta "sis-sa"rik ere, Fueroen aurkakoa zalakoz (Tit. 2,C.7). Berak ematen zuna, bere gogoz ematen zuan eta ez beartuta; ezta betiko ere.

1637'an, Madriderik, bere gogo utsez, "paper seillatua" sartu nai izan zuan Gipuzkoan. Paper oien enkargatuak, guztiak, giltzapean sartu zituzten.

Urrengo urtearen Urrillean eskabide bat egiten dio Erregeak Gipuzkoari. Onek

amar milla dukat dirutan bialdu zion eta gaiñera 30.000 kare-fanega eta seireun toneladako lau galeoi egiteko aiña egur.

1707'an, Kapitan Jeneralak, Erregearen serbitzurako, Ondarrabi'ko arri-esiak konpontzera beartu nai izan zuan Probintzia; baiña, onek, Erregearen serbitzura-ko, Getaria'ko arri-esia konpondu zuan eta bertan ipiñi kañoiak; Ondarrabian, berriz, ez zuan ezer egiñ.

Oiartzun'go Konzejal batek, Madrid'eko petxak onartu bear zirala aitzera eman zualako, leiotik kalera txintxilik eduki zuten; kalera botatzeko amenazak egiñ ere bai.

"Impuesto de pedido" zeritzan zergaren eztabaida seireun uriez aurretik asita zegoan.

Tolosa, Segura, Mondragoe, Mutriku, Getari, Ordizia, Bergara, Gatzaga eta Zarauzko Prokuradoreak Tolosan alkariu ziran 1391'an eta erabaki bereziak ariu zituzten petxa orren aurka, asita bait zeuden oietako zerga-biltzailleak Probintzian petxabila.

1463'an Gazteiz'ko Gaon judutarrari gertatutakoa oso ezaguna da. Zerga ori biltzen asi zan eta ez egiteko esan zioten. Alaz ere, berak bere astuari arre, berean ekin zion. Burua ebagi zioten Tolosako errian eta buru ori urka-abean (picota) esegi zuten.

Gipuzkoako portuetatik (bai buzti eta bai legor) pasatzen zan merkagai oro "amarren-zaar" zeritzon zerga ordaindu bear zuten. Portu-legor antxiñakoena Tolosa zan Probintzi guztian. Portuetan bazan "renteria" zeritzan atalondo (lonja) bat etxe batean, amarren oiek kobratzeko. Ez ziran galestiak. Donostikoen berri badegu. Ona: burni-kintal bakoitzeko marabedi erdi bat; galtzairuatik, marabedi osoa; zirraidagaitik (estaño) lau marabedi...

Bizkaiko Fueroak zionez (Tit. 4,L.4) bizkaitarra libre zan kanpotik etortzen ziran petxa guztietatik. Ordaintzen zutena, Gaztela'ko Erregeari alegia, borondatez ematen zan. Bizkaiko Jaunari bai "amasei diru zaar ordaintzen zioten burni-kintal bakoitzeko".

Arabak ere ordaintzen zuan "alcabala" zeritzan zerga (saltzen zutenetik %5) eta Foruek agintzen zituzten bi petxa auek: "semeyo" zeritzana (iru kuarta gari eta iru garagar) eta "martzoko idia" (10 1/2 edo 5 1/2 marabedi bakoitzak aal zuan neurrian urieoro).

Arabako aundikiak ez zuten petxarik ordaintzen. Ordaindu bear bazan, Junta Jeneraletan erabaki bear zan. Gerora, XVII'an, beste oitura au sartu zan: erregeen eskontzak aitzaki zirala, erregaliak egitea.

Nafarroa, beti bezela, bere bidetik zebillen. Erreinoa edo erresuma zan eta orregaitik ba zuan bere diru bereizia ere. Karkos II'aren erreinuan diru-etxeak, Nafarroan, erri auetan zeuden: Iruña, Monreal, San Juan de Pie de Pue rto eta Saint Palais.

1353'an zergak ordaintzen ziran "libra", "sueldos" eta "dineros" diruetan. Noiz-beinka "florines"etan. Gauzezko petxak, berriz, gari, garagar, olo, ardo, sagardo, ollo eta abarretan.

"Villanos" (baserrietan bizi ziranak) bi eratakoak ziran: a) lurra lantzeko ganaduak zeuzkaten nekazariak (petxa osokoak); b) "axaderos", ganadurik gabeak, atxurrakin bakarrik lan egiten zutenak (petxa erdikoak). Auek, besteen erdia ordaintzen zuten. Alargunak, berriz, erdiaren erdia.

Nafarroako zergak auek ziran: MANERIAS, seme gabe iltzen ziran gurasoen ondasunak errege edo jaunarentzak ziran; FONSADEA, gazteluetako arri-esi edo "fosoetan" lan egiteko bearkizuna; SACA, kanpora bialtzen zanetik artuak; PEAJE, kanpotik zetorren jeneroari artuak: PECHA CAPITAL, onenbesteko bat famili bakoitzari; CENA DEL REY, erriak Erregeari jaten emateko zeukaten bearkizuna. Bearkizun au eten-gabea biurto zan eta orregaitik, eten-gabe, errietatik janak eta edanak bialdu bear erregearen jauregira.

1523'an Nafarroako Korteek kexa ziran Estellakoek Urbasa eta Andia'ra zebiltzen artaldeeri, joan-etorri bakoizeko, ardi edo aari bat eskatzen zitelako.

AUZO-LURRAK

Erriaren lurretatik probetxu atera aal izateko, erriko auzo izan bear zan. Bizitzeak, berak utsik, ez zuan berekin auzotasunaren eskubiderik. Bearrezkoa zan etxe-bizitzak "Fueroaren neurriak" izatea. (Bozate'ko etxeek ez zuten baldintza edo kondizio ori betetzen, Migel Usua'kok zionez, 1661'an, agoteen aurkako ekintza batean).

Auzotasunak berekin zeramazkin eskubide auek: belar, ur eta egurraren eskubideak. Egurra toki bereizietatik (egurtzeetatik) jaso bear zan; eta "su-egurra" ebagi ondoren, amar egunez egon bear zan ikutzeke (Oiarzun). Ondoren, eraman zezakean.

Arabako Zigoitia errixkan, Gorbea-mendiko egurra eta ezkurra danantzako libre zegon.

Bizkaitarrak, bere Jaunari gogora-azitzen diote, lurrak eta mendiak erriarenak dirala, erriaren eskubideak. Orregaitik, Fuerotik eta oituretatik zekarren eskubidea zala, erria Gernikan biltzea, "tañidas cinco bocinas", erri-billa bat sortu aurretik. (Fuero Viejo, Cap. XI).

Meatzak, bai Gipuzkoan eta bai Bizkaian, erriarenak ziran. Erriko Kontsejuen eginbearra zan txara, burni-ola, errota eta ostatuen salmenta. 1822'an, Franzisko Albisu eskribanoak Tolosa erriko lurren salmenta egin zuan, eskritura eta guzti. Probinziaren baimenik ote zun ez dakigu; baiña, 1476'an Probinziaren baimena bear zan errietako lurrak saltzeko eta orrela eman zion Eibarko Kontsejuari. Usarraga'n bildu zan egun artan Probintzia. Errietako Kontsejuak eginkizun asko zeuzkaten; bat, oso garrantzi aundikoa au zan: auzo-lurren mugarrieri begiratzea bertara joan-da. Araudietan (Ordenantzeetan) maiz aitatzen dira mugarriek sortzen zituzten korapilloak eta eztabaidak. Errien ariekoak, eta erri barruetan, mugarrieri buruz, sortutakoak. Beti izan bait dira errietan auzo-lurrak bereganatzeko ibilli diran lotsa-galduak. Xistema erreza izaten zan, auzoan erri-lurrak zituztenak, tarteko mugarriak aldatzea. Errezagorik, zer? Ori egiten dutenak ez dira falta gaurko egunean ere.

1504, ekainaren 21'an, Erregearen ordena: auzo-lurrak bereganatu dituztenak, mugarriak beuren tokira aldatzeko berriro... Ordena ori egon arren, keixak berriz ere: "lur-berriak, baimenik gabe urratsea, ez dagoala libre; batzuek, beuren probetxuan, erriko lurretan fruta-arbolak aldatu dituztela...".

1704, urriaren 4'an, Tolosako agintariak, orrelako arbolak lurretik ateratzeko agindua ematen dute...

Nafar-erriberan, oraindik ere, badira orrelako lurrak, auzo-lurrak, edozeiñeri urratseko uzten zaizkionak, ordaiñ txiki baten orde. Kostaldeko erriak bazituzten portuan atalondo edo lonja bat. Zenbait burni-ola, errota, ostatu eta benta, nekezari-baserri, teilla-ola, arategi eta abar errienak izan oi ziran. Gero Kontsejuak subastan ematen zitun maiztarrerri.

1530'an, Nafarroako auzo-etxe bakoitzak ba zun sei idi eta sei beor belardietan botatzeko eskubidea. Oietzaz gaiñera, beste 120 ardi edo orren antzeko ganaduak ere bai. (Noain). Oiiñatiko "auzo-basoak" etxegintzarako bear ziran egur eta zurak eskeintzen zitun erritarrerri. Marabedi bat eskeintzen zuten bakoitzak ordaintzeko; bear izan ezkeru, bazuten ere aritz bat botatzeko eskubide. Joan dan eunkian galdu ziran "auzo-baso" geienak. Baso oien saltzeak 1868'an asi ziran "desamortización" deritzan legearen ondoren. Baso eta lur oiek guztien probetxurako ziralako, Kontsejuak protesta egin zuten. Dana alperrik.

Ilxkako protesta asko izan zan arrezkeru. Protesta abots orrek indar berri bat artu bear luke gaurko egunez, geienetan ezagunak bait dira auzo-lurren jabe

egin ziranak. Abots ori ixiltzen zan Aiuntamentukoak lapurretan parte artzen zuten unean. Protesta ez da era bat ixildu:

"Terrenos ocupados y usurpados muchos e grandes términos de la dicha tierra comunal, malamente, sin título e sin conciencia alguna".

"Auzo-lurranen zati asko eta aundiak, indarrez artuak, gaizki, ez eskubide eta konzienziarik gabe".

Auzo-lanak ere danentzako betekizunak ziran. Nafarroan etxe bakoitzatik giza-
semen bat bear zuan; bestela, berriz, kantara bat ardo ekarri bear zuten lanean ari ziranentzako.

LANGILLE-KOFRADIAK

Kofradi auek oso dira interesgarri, langilleak berberak diran neurrian... Artzaia erabilli degu beti gure elerti-kantuetan, besterik ez balego bezela; izan ere, egia da, artzai errietatik sortu ziralako munduko kultura famatuak... Baiña, arizai euskalduna unai ere bada, kostaldean arrantzale, eta basoetan meatzaille eta olagizon. Euskaldunak erakutsi zion inglesari, holandesari, balea arrapatzen eta bere koipeak urtutzen; euskaldun olagizona konpetentzian ibilliko da Europa guziko olagizonekin... leltzero eta argiñ ere egingo da. Donostia'ko moillak eta nasak egingo ditu; andik Portugalete'ra eta emendik Ingalaterra'ko Dover'era ango moillak egitera. (Gure argiñ euskaldunaren iritziz bi illabete naikoak izango dituzte ango argiñeri moillak eta artarako bear dan mortero edo espaloi berezia egiten erakusteko; baita arriak bere eraran jartzen eta artarako bear ziran poleak eta puntalak jasotzen... Sei edo zazpi brazatik beera, ur-azpian, oiñarriak ipintzeak ez ditu bil durtzen... 1535'ko kontuak dira. Eun gizaseme bearko omen dute lanerako... Eta abar).

XI eta XII'an, langille talde auek, alkarren laguntzarako eta ekonomia zuzentzeko, kofradi bereizi batzuek osatuko dituzte... Espirituzko bearkizunak betetzeko ere, baziran. Kofradi auek gremioen sustrai eta iturri bezela izan ditugu. Gremioak azitzen joan ziran neurrian, kofradi auek espirituzko biurtu ziran.

Kofradietan alkartzen ziran, eta mailla berean, naiz maixu, naiz ofizial, naiz ikasle. Baita beuren emazteak ere. Ofizio edo langintza bakoitzak sortu zuan bere Kofradi berezia. Burnigille "tenaza-maixuak" (maestros tenaceros) osatzen zuten Santa Luzia'ren kofradia. Bazan meatza ateratzen zutenen kofradia. (Minetako lenengo Legedia Gipuzkoan, ezagutzen direnetik zaarrena, 1434'koa da). 1552'an egin zuten Oñatin sartagilleen Legedi edo Ordenantza. Seigarren kapitulu, sartagille bakoitzak bere seillua izan dezala, agintzen du.

Nafarroan ofiziodunak kale-umeak ziran eta ofizio bakoitzeentzako bere kalea bazan. Talde bakoitzak bazun bere Alkatea ere, beuren defentsarako. Itxas-gizon, barku-maixu eta merkatariek Santiago'ren kofradian biltzen ziran Bilbo'n. Donostiako kofradirik indartsuena Santa Katalina'na zan: merkatarik donostiar eta itxasgizonena. Jostunek San Antonio'rena zuten; arotzak, San Jose'rena; errementariak, San Martiñ'ena; zillargilleak, San Eloi'rena; larrugilleak, San Krispiñ'ena eta abar.

Erosdunak eta agintariak kofradi auen aurka zeuden. Agintarien arrazoia: "Kofradi oietatik kalteak darie, gauzen prezio jasotzen dutelako". (N.R. de Leyes de Navarra, Tit. 4,L.1). Ona Lege oiek zer agintzen duen: "langille kofradirik ez jasotzeko eta daudenak desegiteko".

Gipuzkoako Fueroak edozein kolorezko kofradiak debekatzen ditu "elizakoak izan ezik". (Tit. 28,C.1). Donostia'ko Santa Katalina kofradia Errege Katolikoek desegiñ zuten "alkarren arteko batasun gaiztoetan biltzen ziralako, Aiuntamentuko gela-nagusian ugoldea bezela sartzen ziralako eta euren naiera Kontsejua beartzen zutelako".

Debeku au ez zan izan ez mediku, ez botikario eta ez zirujanoentzako.

NEKAZARI-KOFRADIAK

Auetzek dituzu, dudarik gabe, kofradiarik zarrenak. Uzta-galtzeak eta ganadu-izurriaren kalteak zuzentzea eta ordaintzea izan oi zan kofradi auen elburua. Auetakoak ziran San Migel Alzuztako Zeanurin, Endañeta'ko Terrama Zumaian, Goiburukoa Andoain'en eta San Isidro'rena Araban...

Kofradian zeuden auzokoek eskubidea zuten auzoko-lurrak erabiltzeko. Gerora auzo-lurren jabe egin ziran askok, aurretik kofradien buru egin ziran: Kofradiako jauntxo izateatik, lurraren jabetasunera. 1929'an, auzo lurren jabe aurretik egin ziranekin, burrukan zebiltzen oraindik ere Kofradietako nekazariak.

Erru onek bi alde ditu bata bestea baiño txarragoa: alde batetik, erriaren auzo-lurrak desegiñ; eta bestetik, eurak bezin auzoko, eurak beziñ euskaldun, eurak bezin erriko eta jabe ziran kristaueri jabetasuna kendu (Thalamas).

Auzo-lurren arrastro batzuek besterik ez dira gelditu gaurdaino. Liberal politikak, Fueroak kendu ondoren, "propiedad privada" deritzan eskubideak indartzen ditu, eta oiñarririk iraultzen ditu nekazari-kofradiak. Alaz ere, Gipuzkoa eta Bizkaian alkar jota, 700 oietako kofradi ba ziran oraindik 1936'an.

1936'garren urte onek azterketa bat merezi luke; arrezkero erriaren auzobelardietan, mugarriak aldatuta edo aldatzeke, piñuak sartu bait dira ugari leenago ardiek larratzen ziran tokietan. Ausardiz aldatutako piñuak dituzu; eta, noiz bein-ka, Aiuntamentuaren aspi-jokoz.

ARRANTZALE-KOFRADIAK

Nekazarien kofradiak bezin zaar eta erri-billak sortu baiño leenagokoak. Ala Ondarrabian, Deban, Mutrikun, Bermeon, Lekeition eta abar. XIII'garren eunkirako ba zituzten arrantzaleek beuren kofradiak, San Pedro'ren zainpean.

Bermeo'ko Kofradiaren Ordenantzak, 1353'ekoak, zoragarriko Itxas-legedi bat da. Bere elburua au zan: San Pedro altaren serbitsua eta Kofradiko beartsueri laguntza. Zartzaroarentzat duten begirunea arrigarrizkoa da... "Zaar eta gazteak" lanetik bota aal izateko eragozpenak, maiordomoen eginkizunak, huelga-aldian eta abar... Preso, langabe eta elbarri gelditzen ziranentzako laguntzak eta abar...

Pillotu, maixu eta tostartekoen arteko auzietan nola erabaki bear dan, erakusten die Ondarrabia'ko Legediak Itxasoko Alkateeri. Auengana jo bear zuten itxasgizonek beuren arteko auziak konpontzera; eta ez beste erriko agintariengana.

Mutriku'ko Legedia señerueri buruz dira oso bereziak, itxasgizonen segurantzirako jarriak bait dira. Deba'koak, berriz, Kofradiako "janak" (El yantar de la Cofradia) nolakoak bear zuten, ori ere aitatzen du.

Dirua eta kapitala tartean sartu zanean, sustraietik atera zitun kofradiak: asieran, gauza, patroï eta kofradikoen arteko artu-emanak ziran; gero, berriz, "armadorea" sartu zanean, diruduna, kofradiko anai guztiak erori ziran alogerapean. Kofradiari aizken golpea, arraiñ saltzean tarteko sartu ziranek eman zioten.

KOSME eta DAMIAN SANTUEN KOFRADIAK

Iruña'ko Kosme eta Damian Santuen Kofradia 1496'ko urtarrillaren 31'an eratu zan, Ama Birjiña Karmengo Komentuan.

Mediku, botikario eta "barbero" (zirujano-odol-ateratzaille) izateko Kofradikoak bear zuten izan. 1724'an Nafar-Korteak auxe erabaki zuten:

"Mediku, botikario eta zirujano agiriak artu aurretik, Kolejioak (Kofradiak) aztertu eta onartu bearko ditu".

1766'an, berriz, onela diote: "odol garbikoak izan ditezela eta beuren gurasoen langintza edo ofizioak ez ditezela izan badaezpadakoak". Auxe probatu bear zuten: ez zirala ez judutar, ez mairu, ez agote, ez-eta inkisizioak zigortutako

gurasoen semeak ere. Latiñez jakitea bearrezkoa zan, estudiatu eta ikasi bear zituzten liburuak latiñez bait zeuden. Tolosan bi mediku eta barbero bat zegoen irurak latin ikasiak.

XV'an Gipuzkoan 17 mediku zeuden. Barberoa, prakticante gizan, eta botikarioa, biak ziran erriko osasunaren zaintzailleak. Nafar-ospitaleko gaixoak keixuz eta espaz beterik dira "barbero -ezjakiñ eskas batzuen eskuetan daudelakoz"...

1607'an agertu zan Oñatin, Erromatik zetorren Angel Tesaura jauna eta berekin zekarzkin "bi olio-mota zauri berriak eta gaxotasun otz-beroak sendatzeko". Bausi Dotoreak, gaia aztertu ondoren, ontzat eman zuan. Orrekin, erriko alkateak saltzeko baimena eman.

Odol-uztutze bat izan oi zan bizita bakoitzeko. Kobraketak, berriz, ez ziran danak berdiñak egindako lanari zegokienak, baizik. Odola ateratzeko barberoak ziran artarako; auen lana florin erdi batekin neurtzen zan. Odola ateratzeko, medikuaren baimena bear zuan barberoak, saiatzeko miña eta erortzeak ez baziran.

Estella'n, denda irikitzeo baimena botikarioari, medikuek, berari azterketa eta examiña bat egin ondoren, ematen zitzaion. Botikarioek protesta egingo dute; baiña, protestak ez zuan baliorik izan arik-eta Felipe II'garrenak agindu au eman zuan arte: "Ospitaleko botikan examiña pasa bearko dute botikarioek, beste a rtarako aukeratutako Botikario baten aurrean".

Noiz-edo-noiz kanpotik ere ekarri oi ziran sendagilleak. Ala gertatu zan Karlos II'garrenarekin: medikuak Aragoi'tik ekarri ziran beretzat. Izurri edo pestea agertzen zanean ere kanpotik ekarri bear medikuak. Pasa-Donianen, 1597'an erri-erdia eta lau mediku kanpotar il ziran, izurriagaitik. Etxeak garbitzeko bi gauza auek erabilli zituzten: belar berezien kea eta ospiña (biñagrea). Eliza garbitzeko, ogeta amalau errada ospiñ bear izan zituzten.

Izurriak izugarriak ziran garai aietan. Eun eta berrogeta amar urteen buruan sei izurri baiño geiego agertu ziran gure ariea. 1599'koa ("epidemia de peste bubónica") Flandes'en sortu zan. Andik Santander, Bizkaia, Gipuzkoa, Estella, Obanos, Puente la Reina eta Iruña'ra. Marsella'ko izurri famatu baten otsa gurera eldu zanean, mugak itxi zituzten Frantziakoak eta andik zetorzen janariak debekatu. Bertatik zetorren eskutitz oro, iltze batekin josi eta ospiñetan busti.

Pasaia'ko izurri garaian, medikuekin batera, Lesaka'tik emakume bat ekarri zuten, artarako birtute bereziak zituna. Larogeita amar errealeko eman zioten alogera. Sasimedikuak ere baziran ugari Euskalerian, esandako Kofradian ez bazeuden ere.

1570'an, Juan Diego zauri, zoma eta sukarrak sendatzeko berezitasuna ba zuan. Gaixoak trankiltzeko, osagarria berak artzen zuan aurretik. Osatu eziñ izan zuan zapatari goor baten erruz, bota zuten bere errira. Martija Jauregi'ko, sasi-medikuak, urdalleko miña kopak (ventosa) ezarrita sendatzen zuan. Ikasketak bere aitaitarekin egin zitun, Lekeitio'ko medikuakin. Lukas Ayerbe'ko, tolosarra, Billaban sustraitua (1670), sasimediku zan eta azti, biak batera Espiritu-gaixoaren menpean zeudenak sendatzen zitun. Sendatzeko, aztikerizko itzak erabiltzen zitun; berak esan eta gaxoak erantzun. Ona itz oiek: "Aker-buru, txakur-buru... "eten-gabe esanak eta bueltaka jira-biran errotarria bezela. Talde batetik 15 espiritu-txar atera zitun aldi bakar batean.

Zirujano baten gaixo-iritzia daukagu. Onela dio: "buru-ezurraren auzia, "duramater" eraiño, au da garunetaraño insten dan tela bat ("una tela que llega hasta los meollos"). 1387'an, gorputz bat gantzutu eta illondutzeko (embalsamar) erabilli ziranen berri badegu. Ona zertuk: biotza eta esteak bi erraidazko (estaño) ontzietan ipiñi ziran, gero espezia asko erabilli zituzten: mirra, aloe, zikotrin, in-tsentsua, linaloe, aunt-adarren zuke (resina de terebinto), Arabiako lika (goma arábiga), kofonia eta abar.

1855'an "cólera morbo" izurriak jo zitun Gipuzkoako bazter guziak. Arraiña

saltzea debekatu zuten Oñatin, kutsua berak zekarrela uzte bait zuten. Osatzeko aukerabiltzen ziran: alkanferraren espiritua, amoniakoaren azetatoakin, opio (?)ren jarabea eta menta-piña uretan".

Kofradi geienak Liberalismo Ekonomikoak garbitu zitun.

"KOMUNERO"-MOGIMENDUA

Komuneroen mogimenduaren adarrak Gipuzkoa'raiño eldu ziran. Zaldunak, letradunak, merkatariak, eliz-gizonak eta langiñak (ariesano) Erregearen aurka jeiki ziran Kastillan, "alcabala" zeritza zerga zalduneri ezarri zietelako, eta eliz-gizoneri, euren errentetatik, amarrenak. Aundikiak (nobles) aldamen batera gelditu ziran; erri-xumeak, berriz, konpasa eta komuneroen laguntzaille bezela jokatu zuan. Karlos Igoa Alemania'ra aldendu zan enperadore-koroia jasotzeko. Bitartean Juan Padilla, Toledo'ko semea, aundikia bera, Erregearen aurka jeiki zan. Berarekin batera parte artu zuten probintzi aukeratuak: Leon, Segovia, Zamora, Salamanca, Toro, Palencia, Valladolid, Medina, Avila, Murcia eta Madrid. Gipuzkoan parte hartutako erriak aukeratu ziran: Tolosa, Segura, Ordizia, Azpeitia, Azkoitia, Mondragoe, Hernani, Deba, Mutriku, Zumaia, Getaria, Eibar, Oyarzun, Urretxua eta Zestua. Mogimendu onek Probintziako askatasunen alde eta zentroko indarkeriaren aurka jokatzen zuan. Orregaitik Korrejidorearen asarre bizi guztiak beuren gainean izan zituzten. Eta, sua begietatik, danak iltzeko agindu zuan, "lau zati egiñak". Tarteko ziran Deba'ko Olano batxillerra, Ernani'ko alkate zan Juan Elduaien'go, Azkoiti'ko alkate Txurruka eta abar. Bazituzten beuren batzoki izkutuak; bat, Sasiolako komentua.

Arabian Salbatierra'ko Kondea ízan zan mogimenduaren buru. Kastilla'ko Junta eta Gipuzkoako Batzordearen tarteko batzalle, bera zan. Kastilla'ko Juntak berau izendatu zuten, Burgos'tik Ondarrabiraiño, Errege-ordezko eta Kapitan Jeneral. (1521'an, apirilaren 23'an menperatuak izan ziran komunero guztiak).

Orozko, Orduña eta Arratia izan eziz, Bizkaiak ez zuan parten artu: jaunaren mende geldi egon ziran. Nafarroa arazo onetik alde egon zan. Bere kezka beste bat zan. Auxe: galdutako askatasunaren bila zebillen. Itsutu egin zan eta bere garairik ezagutu ez; berebiziko aukera izan bait zuan mogimendu onetan bere asmo eta gogoia bete ahal izateko...

EUSKALDUNEN KONTSUL-ETXEAK

Bideak, munduan zear, kruzadoek iriki zituzten eta aien bideetik merkatariak sartu. Aukeratu beuren interesak defenditzeko kontsul-etxeak sortu zituzten.

Brujas'en (Holanda) bazan "Casa de Contratación de Vizcaya" zeritzan Kontsul-etxe bat, euskaldun merkatariarentzat ateak beti irikita zituna; batez ere, inguru aietako portuetan zebiltzenentzat (Brujas, Amberes eta abar).

Euskaldunek kai auetara burnia eraman oi zuten bertan saltzeko eta bertatik Ifar-aldeko portuetara eramateko. "Vizcaya" izena eraman arren, Kontsul-etxe ori euskaldun guztientzako zan. (Bertako Kontsul eta armadoreen artean bi debatar aitatzen dira: Otxoa eta Sasiola). Enrike IV'garrenak protesta dario:

Bilbao'ko Kontsul-etxea

"Consulado, Casa de Contratación, Juzgado de los hombres de negocios de mar y tierra y Universidad de Bilbao" izenarekin eraiki zuten etxe au 1511'an. Aldarte au sortzean, aurretik zegoen "Hermandad de la Marisma" galdu zan. 1489'an, Bilbao'ko Legediak nai zuanez, Kantabria kostaldeko burni guziak Bilbao'ko portutik irten bear zuten itxasora.

Burgos'ko Kontsul-etxearen diktaduraren aurka jeiki zan Bilbo ori berbera biur-
tu nai izan zitzaigun diktadore: Galizia'ko Baiona'tik asi eta Ondarrabiraiño-
burni eta artilleak Bilbotik irten bear ornen zuten Europa'ko portuetara...

Alegiñak egin zitun eta tarteka lortu ere bai: Kontsul-etxea eraiki zutenean,
Europarako ziranak eta Peninsulara Europatik zetoztenak, geienak Bilbo'tik pasa
oi ziran.

Burgos sortu zitzaion aurka eta bere artilleak Portugalete eta Deba'ra bialtzen
saiatu zan. Santander'ek ere bere alegiñak egin zitun ingles eta holandes ospa-
tsu batzuen ondoren, bereganatzeko asmotan; baiña, alperrik. Portugaleteko
barratik pasatzean, portugaletetarrak okerkeri asko egiñ oi suten barkueri; oker
oiengatik zenbaitek ez zuan Bilbora etorri nai.

Kontsul-etxe bakoitzak zeukan bere Legedia, beurak egiña eta Erregeak onar-
tua. Kontsul-etxea bere gaiñ artzen zitun eginbearrak auek ziran: moillak zaindu,
portua eta ibaia zikiñez eta ondarrez garbitu, bideak, almagazetako serbitsuak,
Nautika eta Matematikako Eskola, merkatrien artu-emanak eta abar.

Bilbao'ko Kontsul-etxeak Legedia urte askotan iraun zuan Ameriketako kostal-
dean, San Franzisko'tik asi eta Cabo de Horno'raiño... Uruguay, Paraguay, Txile,
Guatemala, Mexiko eta abarren.

Donostia'ko Kontsul-etxea

Etxe onen Legedia Bilbo'koenatik artuta dago. 1682'an sortua izen onekin:
"Ilustre Universidad, Casa de Contratación y Consulado de la M.N. y M.L. Ciu-
dad de San Sebastián".

24'garren legeak zergak ipintzeko eskubidea ematen dio Kontsul-etxe oneri,
bizi izateko bear zitunak. Baiña, Probintziako Juntek ez zuten ori ontzat eman
Fueroen aurka zalakoz (Tit. 18). Berean segi zuan Kontsul-etxeak, eta Gipuzkoa-
ko industriad, aundia ez bazan ere, zerga ipiñi zion. Diputazioak, ordea, aurpegi
eman zion erabaki orreri, Junteen izenean. Orduan, Azpeitian, txandak ala eska-
tuta, bilduta zegoen Diputazioari iraiñ egin zion Kontsul batek. Diputazioak Kon-
tsuleri bere aurrera etortzeko agindu zion. Onak agertu nai ez, eta bere etxe-
barruan preso artu zuten. 1689'ko maiatzean Zarautz'en egindako Junta Jenera-
lek, Diputazioak egiña onartuz, kontsul ori preso artu eta Zarautza ekartzeko
agintzen dute. Gaiñera bere sagasti, matsondo eta arbolak atera, etxea eta
torreak erre, aberriaren etsai bat besterik ez zalako.

Estranjeriko Erriek aukeratu zituzten kotsulek, Gipuzkoak ez zitun ontzat
eman. 1592'an, Frantziak Juan M. de Argarate jauna aukeratu zuan bere Donos-
ti'ko Kontsul bezela; baiña, izandatzeko orreri, Fueroen aurkako zata-ta. Probintziak
ez zion bere baimenik eman.

Baiona'ko "Cámara de Comercio e Industria"

Baiona'ko "Cámara de Comercio e Industria" deritzan elkarte merkatari-
tasusperu nairik dabil XVIII'garren eunkian. Arro-aldiak eta eztai-garaiak pasatuak
ziran. Arako "Endaia'n merkatari oso aberatsen dendak daude" edo-ta "Donia-
nen kale osoak daude merkatari aberatsez" amaitu ziran esan oiek. Alderantziz,
baizik: eunki orren asieran ainbat eta ainbat olagizon, larrugiñ, eta erriberetako
arotzek (barku-gilleak) Bidasoa'tik onuntz etorri bear izan zuten, egoalderutz.
Lapurdi'ko kaiek aldatzbera artuta zeuden. Lan bakar bat gelditzen zitzaien esa-
teko, auxe: Pireneetako mendietan barku-mastak ebagi, ibaiez Baiona'ra ekarri
eta emendik Brest'eko portura eraman. Beste lan bat era bazuten: Nafarro eta
Aragoi'ko artilleak, Nibe ibai zabala bide, Kanbo'tik Doniane'ra...

Aurrerago, berriz, egun obeak izan zitun, Europa'ko merkagaien biltokia bait
zan Baiona eta Espaiñiako urrearen gordeleku.

1726'ko otsaillaren 20'an, aiuntamentuan bertan, Erregearen ordezkioak sorta-
razi zuan zorioneko "Cámara de Comercio e Industria" dalako ori.

Bere lenengo lana izan zan merkataritzari buruzko azterketa sakon batzuek egitea... Baiña, itzeetan eta aparretan itto ziran. Andik urte batzuetara, 1784'an, Baiona "puerto franco" egin zuten, Baiña, gaur bezela orduan ere, Baiona'ko inguruak lanik ez du beure gazteeri eskeintzeko; eta era orretara, merkataritzak ezin dezake segurantzirik izan.

1975'an asmakizun berri bat sortu dute: "Service Permanent pour les Affaires Espagnols". Zertarako da? Gipuzkoa eta Bizkaiko lantegiak Adour'en erriberetara eramateko.

Deba'ko Kontsul-etxea

Deba'k ere izan zuan bere Kontsul-etxea sortzeko tenta-aldia. Gogoan zitun bere denbora bateko aunditasunak, artille geienak bere portutik irtetzen zuten garaia.

Tenta-aldi onetarako Bergara'tik Alzola'ra irikitako bide berriak eman zion aukera. Ori lortzeko Gazteiz'ko merkatariekin asi zan artu-emanetan; eurak bait ziran Debara etorri oi ziranak. Bear bada Burgos, Zaragoza eta beste erri batzuek ere Deba'ko kai au artuko zutela euren merkagaiei irteerako, pentsatu zuten, nunbait.

1787'ko martxoaren 24'an eman zioten Deba'ri bere Kontsul-etxea. Ori lortzeko lanetan Probintzia ez zan tarteko, mesede ori ematekoan ere ez. Eta Probintziak onartu ez, eragozpenak ipiñi eta aurrera eramatea galerazi.

1829'an, kai guziera "Código de Comercio" deritzan legedia ezarri zitzaizenean, orduan amaitu ziran betirako Euskalerriko Kontsul-etxeak.

• • •


Leize eta illobi zaarretan arkitzen ditugu euskaldunok gure asaben bizikeraren urratzak: pentsakera, artilanak, gizarte arazoak... Gure asabek utzi digute odola, izkera, bizikera... Ori gertatu da etenik gabe, ia 30.000 urteen buruan...

Euskal eiztaria artzai, unai, nekazari eta langille biurtu zaigu. Baserrietatik erribilduetara jetxi da, eta emendik uri aundietara: baserri kutsua galdu du, baiña urikorik artu ez oraindik: Auñamendí gallurretik, batera eta bestera begira, maiz ikusi ditu, bere inguruan, askatasun berri bat ospatzen zuten erriak; seiñale, galduta zeukatena...

Aitz-zuloetako ormeetan esku aundiak marraztu zitun; esku oiek litzazke gaur egun langille euskaldunentzako kanturik ederrena. Gizona bere eskueri esker bait da gizon: elerti lanetan gizonaren eskua dago beti ekiñean.

Gerora, esku oiek alkartzen dira (Urruñe'ko bataio-pontean ikusten diran antzera) Kofradiak eta lagunarteak sortzeko —langilleak alkartuta— "San Pedro jaunaren aldararen serbitsurako eta Kofradiako beartsuen laguntzarako".

Arrinda, Anes eta Donato



IRAZKINTZA

OÑATIBIA'TAR JON ETA EUSKERA "IRAKASBIDEA"

Oñatibia'tar Jon zanari buruz, gauza asko ta asko dituzte batek eta bestek esanak egun auetan, baiña geiagorik ere gelditzen zaigu esateke. Ez goaz, ordea, utsune oiek guztiak betetzera.

Gai bakarrari elduko diot nere saio ontan: "**Oñatibia, irakasle**". Emen azalduko dizuedan alderdia, auxe da, beraz: Oñatibia, euskera-irakasle ta bein alor ontan, Oñatibia'ren Euskera irakasbidea edo metodoa.

Egia esan, beti ta alor askotan jardun zan Jon irakasten edo ikasi-erazten: musika, txistu, euskal-dantzak, baiña nagusienik Euskera bera. Bai benetan ego-ki egin zuala, aspaldi Iparragirre'k esana: "Eman da zabal zazu munduan frutua".

Orrela ibilli zan eta orrelaxe bizi izan zan alde guztietan bere euskaltasuna ematen eta zabaltzen. Asi, Zaragoza'n asi zan bada, antxe lege-ikasketak egiten ari zan bitartean, guretzat galgarri izan zan gudatearen aurretik noski. Euskerarik ez zekiten euskaldun ikasleei irakasten egin zituan lenengo urratsak.

Gudaldiko ekaitz-zurrunbilloak Euskalerritik iges egin bearrean jarri zuan Jon gaztea. Ipar-Euskalerrian kokatu zan alditxo batez, eta ez alperrik, an ere musika ta txistu ta euskera irakasten ari izan bai-zan.

Eta andik urrutirago: Ameriketa'ra, txantxetan ere. Venezuela'tik Ipar-Ameriketa'ra edo Estatu Elkartuetara igo zan. Aizez bizitzea eziñezko gauza zitzaionez, ogia ateratzeko lana egin bear, arritzekoa ez danez. Bearrak ez du begirik, baiña bearra maisu ona ornen danez, zekianaz baliatzera jo zuan, eta alaxe, New York uri aundiko "Izkuntza-Ikastetxe" batean sartu zan.

Berak gogozkoen izango zukeana irakastera ez, orratik. An gaztelera irakatsi bear izan zuan, baiña ez zitzaion ez kalterako ta ez alperrikako gertatu ango jarduketa. "Izkuntza-Ikastetxe" ura ospe aundikoa zan, berian ikasten bai-zuten lurralde ta izkuntza askotakoek beste izkuntzaren bat.

Onela dauka Jon'ek berak idatzirik: "Lenengo egunetan konturatu nintzanez, era berezi-berezia zerabilkiten eta pozez txoraturik, ala nion nere baitan: Au gogozko zaidak... Euskeraz irakasteko ere... noizbait ondo etorriko zaidala, ziur natxegok". Eta alaxe gertatu zitzaion.

Antxe urruti aietan sortu zitzaion buruan asmo bizi bat: Aal bezain laister itzuli Euskalerrira ta emen, euskeraz ongi zekitenak arturik, beste geiagori, zekitenei ta ez zekitenei, euskera irakatsiko zieten irakasle edo laguntzaille edo gidari edo diralakoak gertutzeko asmoa alegia. Ortarako, berriz, irakasbidea ere bear zuan lagungarri. Bereala asi zan buru-errotari eragiten, "Izkuntza-Ikastetxea"n ikasiak eta arturiko oarrak ausnartuz, berak beste irakasbide edo metodo berri bat oreu aal izateko bidean gaiak eiotzen. Eta bein Euskalerrira itzuli bezain laister ekin zion lanari.

Onela, 1965'gn urtean eman zuan argitara "**Euskera irrati-bidez**" edo "**Eus-**

keraradiofónico" liburua, berreun orrialde baiño geixegoko alea. Ogei ta lau urte dira, beraz.

Garai artara bitarteko "euskal gramatika" deituak ez-bezalakoa zan, eta ain zuzen ere "gramatika" baiño areago, irakasbidea zan, metodoa. Ordura artekoak baiño berriagoa zan, biziagoa, landuagoa, erraztuagoa. Eta guztia esateko, geroz agertu diran ugari oien aitzindari edo bide-urratzaille izan zan.

Urteen joanean aurrera jarraitu zuanez, 1965'etik 1979'gn urtera bitartean, txantxetan ere AMAR argitalpen egitea lortu zuan. Au da, argitalpen bat amaitu orduko, bestea argitaratzen zuanez, bederatzi agortu-aldi ta ondorioz AMAR aldiz atera zuan bere irakasbidea. Azkenengoari, ain zuzen, izena ta itxura asko aldatu zizkion: **"Erriaren Euskera Batua"** eta gazteleraz **Método de Euskera unificado"** ipiñi bai-zion deitura bikoitza.

Ogeita amar ikaskai ditu Lenengo Maillak, eta auxe da geienik argitaratua. Baiña badu Bigarren Mailla ere, aurrekoaren jarraipen. Eta ez noa emen liburuaren beraren xeetasun geiago ematera.

Baiña esan bearrekoa dut, Lapu rteraz ere argitaratu zuala irakasbide bera, Ipar-Euskalerrian ere ez zekitenei euskeraz irakatsi aal izateko lagungarritzat. Iru argitalpen eta 10.000 ale. Sekula ez bezalako kopurua!

Agian ori baiño arrigarriago da orain esango dizuedana. Bizkaieraz ere argitaratu zuala, laister, bereala: 1967'an ain zuzen. Ia-ia apustu ere egingo nizuke, "Euskera irrati-bidez" liburua nork bizkaieratu zionik ezetz asmatu. Gerora izan diran eztabaidak eta areriotasun edo etsaitasunak orduan artean gaiztotu gabe ziran, noski. Baiña azken-urte auetako gora-beerak ikusita, nork uste lezake, txantxetan ere, Franzisko Xabier Kintana'k egin zezakeanik bizkaieratze-lan ori? Baiña orrelaxe dira gauzak.

Ateak itxirik zeuden euskerarentzat, edonork dakikeanez. Baiña Jon ez zan besoak antxumaturik edo tolesturik, ateak noiz irekiko zai egoten dan oietakoa. Ausardiz eta irriparez beteta, an lortu zuan Euskera bazter askotaraiño irixtea: lantoki, sukalde ta ikastetxe batzuetaraiño beintzat. Otarako, berriz, berak zabaldu zituan irrati, izparringi edo egunkari ta Ikastetxeetako ateak Euskerari sarrera eman aal izateko.

Zenbat eta zenbat irratsaio barreiatu ez ote ziran urte aietan? Eta zenbait jendek pozik eta iraupenez jarraitu zituzten beren etxeetatik, lantokietatik eta, azkenik, baita Ikastetxe batzuetatik ere. Auxe izan zan, agian ekintzarik ausartena; eta lagundu balitzaio, eragozteko orde, auskalo zenbat geiagok jarraituko zuten eta ondotoxo ikastera irixtea lortu ere.

Bearrezko ziran baimen guztiak lortu an eta emen, bai Agintaritzatik eta bai Ikastetxeetan bertan, eta, Jon'ek berak gertutu ta trebaturiko euskera-emaille asko ipiñi zituan erri aundi batzuetako zenbait Ikastetxetan, ordu jakiñetan noski, irratis entzun aifnean, ikasleei laguntzen. Euskeraz ongi zekian ia-ia edozein gertutzen zuan Jon'ek, bere "Euskera irrati-bidez" irakasbidea lagun artuta, euskerarik ez zekitenei aixa irakasteko.

Bereala sortu ziran sekulako eragozpenak. Batetik, irakasle-titulu bearra edozein Ikastetxetan Euskera bera irakasteko ere. Eta orrela atzeratu bearrean gertatu ziran asko ta asko. Urrena, berriz, Euskera beraren inguru sortu ta gogortu zan borrokak ere eragozpen ugari ekarri zituan Jon'ek zeraman ekintzarentzat. Artan amaitu ziran erri aundietako Ikastetxeetan asitako lanak, bai Zumaia, bai Azpeiti, bai Zarautz e.a.

Lan aundi ta zabal ori burutzeko, berriz, ez pentsa, urte aietan, orain bezala, "Korrika -5 -6" ta olakorik ezer izan zezakeanik bere laguntzaille. Bestetik, Jaur ez genuan babesteko. Udaletxe ta Aldundiak dirurik gabe ta laguntzeko gogo aundirik gabekoak ziran. Nola lortzen zuan Jon'ek alako lanak burutzea? Asmatzen ez da erraza. Baiña or daude.

Gure ORIXE aundiak ez-ezik, Oñatibia'tar Jon'ek ere, beti ezkongabe ta beti

ezkongai iraunez, Euskera zuan bere buru-biotzetako andregai maitea. Eta arixe eskeñi zion bere bizitza osoa.

Bideko ez-bearrez zaurituta, 1979'go ekainillaren azkenetan joan zitzaigun. Geriaera illun eta samingarri ura zala-ta, onako itz auek idatzi nituan GOIZ-ARGI'n, orduan asteroko zan aldizkarian; eta oberik ez daukadanez, berak dakazkitzuet berriz: "Iritziak iritzi, or dago Euskeraz ikasteko irakasbidea bera; or dago, gaiñera, urtez-urte izan duan arrakasta. Amar Argitaldi, bada zerbait, gizon batek egiña izateko. Ez erakunde, ez ikastetxe ta ez politika-talderik zuan atzetik Oñatibia'k, babesa eskeintzeko ta zabalkundea egiteko. Bakarrik ibilli da beti, bere lanez eta ekintzaz, eta irakasbide edo metodoaren beraren barneko balio jatorra beste ezertaz baliatu gabe.

"Berrikeriak eta modak dirala-bide ainbeste eragozpenez ostikatu arren ere, AMAR ARGITALDI izatera iritxi dan irakasbidea edo metodoa, ez da txarra. **Gauza bera mintzo da**, latifiekzo "res ipsa loquatur" esaldiak diona egia biurtuz".

Irakasbide edo metodoa berez mintzo ba'da, Jon'ek buruturiko irakasketa edo irakaste-lanak ere berenez mintzo zaizkigu. Zenbat eta zenbat ikastaldi ez ote zituan eman! Bi eratakoak eman ere. Batetik, Euskera bera irakasteko, ez zekite-nei; bestetik, irakasle ta euskera-emailleak gertutzeko.

Lenengo alor ontan, aipatu gabe ezin utzi, Ipar-Ameriketa'ko ikasle-taldeekin —ain juxtu ere euskaldunen jatorriko ta adiskideen seme-alabak— bizpairu urtez Oñati'n burutu zituan ikastaldiak. Gutxi gora-beera sei illabeteren buruan euskeraz naiko ongi mintzatzer a jaso zituan.

Ori zala-ta, Ipar-Ameriketa'ko Kalifornia, Idaho ta Nevada'ko euskaldunek ostera joan-erazi zuten, ango Uniersidadeetan Euskera irakasbidea azaltzera ta irakasleak gertutzera.

Bigarren alorrean, berriz, —bera toki guztietara eldu ezin zanez— euskera-emaille ugari gertutzeko ere lan aundiak egin zituan eta auskalo zenbat ikastaldi eman, batzuk apalagoak eta besteak jendetsuagoak. Ezagunenak edo maillarik nabarienekoak, Donosti'ko Apaizgaitegian, Loiola'n, Gasteiz'en eta Iruña'n izan ziran, Jon'en ardurapean noski, beste laguntzaille geiagorekin ibilli ba'zan ere. Eta jardun auek guztiak Andereñoentzat eta Irakasleentzat ziran, gero beraiek ongi irakatsi aal izateko bidean ezigarri.

Baiña... muzin egin zitzaion: leen ona zana, une batetik bestera txartutat, "bai, Oñatibia'rena da ta kito!" egiñik. Ixiltasun beltzera zokoratu zuten askok eta askok, batzuek ez-jakiñean eta beste zenbaitek jakiñean eta naita. Beste garai batzuk bai-ziran. Politika-borrokarik ez zitekean orduan, agerian beintzat, eta... Euskera bera, Ikastolak e.a. izan ziran 1968'tik 1977'ra bitartean borroka-leku.

Ala ta guztiz ere, Oñatibia'k etsi zuanik ez pentsa. Bestela ez zan Oñatibia izango ta gutxiago Jon. Beti bezain irripartsu, aldarte onik galdu gabe, etsikaitz jarraitu zuan arnasak iraun zion bitartean.

Esanak esanik, Euskera irakasbidea berari buruz ere zertxobait esatea, bearezko dala uste dut. Eta lenengo gauza, mintzaira bat —edozein dala ere— mintzatzeko da danen gaiñetik; izkuntza, itz egiteko da. Orren osagarri datoz, noski, idaztea ta irakurtzea.

Eta Jon'ek bere irakasbidea landu ta burutzekoan, oiñarri ori oso gogoan zualarik, auxe zuan bere lenengo elburua, bere itzez esateko: "Nere irakasbide edo metodoaren lenengo jomuga, auxe da: Lenengo unetik beretik, ikasten duana, bereala, une berean, itzez erabil dezala edo itzezin dezala".

Ortara darama, ain zuzen ere, Oñatibia'ren irakasbideak, itz erraz batzuk buruz ikasi bezain laister, aietxek berak galde-erantzunetan erabiltzera. Lenengo saioan, galdera guztiei baiezkoko erantzuna emanez, bigarreanean ezezkoa; eta irugarreanean, galderari dagokion erantzuna. Saioak esan dut, baiña, ikaskai bakoitzeke iru zatiak dira.

Beste berezitasun bat, --guztiak esateko usterik gabe—, ikaskaia eman eta

artzeko aldi edo denbora osoa, iñola aal dalarik beintzat, dana euskera utsean egitea da. Zergatik? Ikaslearen buruak ikasketako aria galtzen dualako, beste izkuntza bat sartu ezker. Eman oi zizkigun berak bere jardunetan gertatuak, aitorpen orren argibidetzat.

Eta esan bearrik ez, gramatikazko azalpen luze ta sakonik ere ez duala eskeintzen, irakasbideak ala eskatuta noski. Dana errazturik ematen dio ikasleari. Egunero ta jardun bakoitzean zerbait aurreratu dualazko poza nabaitu-eraziz. Orrela autsi zuan, bai, euskera ikastea oso zailla dalazko usteak edo esateak dakarren beldurra.

Beste berezitasun bat aipatzeko, auxe ere esan bear: Irakaslearekin galde ta erantzun, elkar-izketan jarduna egin ondoren, ikasleak berak jardun-erazten zituan elkar-izketan. Jakiña, bakoitzean burura zetozkien gauza berriak gai artuta ez noski; ikaskai bakoitzean ikasiak gai artuta baizik. Baiña ori bera ere pozgarri zaie ikasleei, egun bakoitzean egindako aurrerapenaren kilikaz.

Irudiak eta abestiak ere lagungarritzat erabiltzen zituan, irakasbidearen aberasgarri.

Beste zenbait alderdi aipatu gabe utzirik, eta esan ditugunak kontuan artuta, ondorio au atera bear dugu: irakasbide au, mintzatzekoa danez, zuzeneko irakasbide dala; gazteleraz esanda, "método directo". Orregatik ipintzen zuan Jon'ek "**Euskera artez**", irakaslearen edo euskera-emaillearen lagungarri atera zuan liburuaren deituratzat.

Eta esanik dugu irakasbidea oiñarritzat artuta, beste zerbait ausartagoa, bixiagoa ta aberatsagoa ere burutu zuan gure ekintzaille irudimentsu ta musikariak: "**Euskera, jolas-bidez**", ain zuzen ere umeentzat egokiago girotua. Eta ongi trebaturiko euskera-emailleak diranean, umetxo erdaldunak oso posik ari oi dira ikasten, aientzat benetako jolasa dalako. Onela da maillaka:

Ikaskaiari dagokion gaia azaldu: itz berriak entzun, gero esan.

Abestia: abestu bakarrik, eta bestela, abestu bitartean keiñuak egiñez,

—Baiezko erantzuna eskatzen duten galderak.

—Abestia, baiña oraingoan ibilliz, mugituz, erritmoari jarraika.

—Ezezko erantzuna eskatzen duten galderak.

—Abestia, baiña oraingoan dantza egiñez.

Au guztia gauza otza da onela itzez esanik. Umeak ikustean, ordea, askoz obeto ulertzen du edonork, eta bestela ezin. Eta "Jolas-bidez" irakasbidea ongi ikasi ondoren, egoki erabiltzen dutenei galdetu besterik ez dago zeñen pozik jolasten diran aur erdaldunak; eta zeñen atsegintsu egiten dituzten umeek aurrerapenak euskeraz ikasteko bidean.

Il zan aurreko udaberrian, 1978'an alegia, Ipar-Ameriketa'ko deiari jarraituz, Boise'ko ta Reno'ko Unibersidadeetara joan zanean, azaldu zien umeentzako irakasbide bitxi au. Eta ez alperrik. Txantxetan ere "video" tresnaz artu zioten. Unibersidade oietako atal berezi batzuk dira "Boise'ko "Basque Studies Center" eta Reno'ko "Basque Studies Program" eta biei zor ziela ustekabeko pozgarria, aitortzen zuan Jon'ek. Gero, beste euskal-etxeetara bidaltzeaz gaiñera, ikustirratiz ere eman zituzten saioak.

Ontan ere arrazoi guztiz esan dezakegu, gauza bera mintzo dala, berez mintzo ere.

Bein ontara ezker, atzerritar izkuntzalari batzuen iritziak emen aipatzea ez da batere kaltekoa izanen, esan bai-dezake norbaitek: "bai, ori ederki ari zaiguk bere adiskidea adiskidekiro goraltzen".

Ipar-Ameriketa'ko "**San Diego**" Unibersidadean irakasle dan MAC MURRAUGH onela mintzatu zan orain zazpi urte:

"Gaur Euskalerrian euskeraz erakusteko erabiltzen dituzten era edo metodoak ez dira egokiak: egitura konplejoa duten izkuntzak, euskera bezala, irakasteko ez dute balio metodo oiek... Euskerak bezala, egitura azkarra edo konplejoa duten

izkuntza-mota auek irakasteko, metodo "audio-lingual" edo "entzun-esatekoak" darabilzkite Ipar-Ameriketa'n. Baiña kontu izan izenarekin: "audio-lingual" gauza bat da ta Españi'n saltzen dan "audio-visual" timo ori, beste gauza bat.

Eta metodo onen oiñarri bat, zera da: izkuntza baten ikaskuntzak zer ikusi gutxi duala ekintza intelektual batekin, eta zer ikusi aundia, ordea, bapateko ta ustegabeko asimilazio batekin. Irakatsi bear díran egiturak, ondo finkatuta gero, gela bateko ikasle guztiek elkarrekin errepikatzen dituzte egunean egunekoak. Lenengo, guztiek elkarrekin, esan bezala; gero, binaka ta azkenik bakarka. Errepika ta errepika —bein eta berriz entzunez eta esanez, alegia— buruz eta automatikoki, errelejo utsez ikasi arte. Ikasleak ez dezala, esan bear duana pentsatu, ustekabean barneratu baizik" (Deia, 1980'go-VIII-27'koa).

Nik esan bear ba'nu, auxe da Oñatibia'ren irakasbideak egiten duana. Gero, jakiña, irakaslearen gain doaz irakasbidea ongi erabilli ta ondorio onak lortzea bezala, gaizki ta arinki erabilliz, emaitz onik ez lorizea.

Azkenik, beste aitopen bat eta ez utsaren urrengoa. Au ere Ipar-Ameriketa'koa da ta 1980'an Euskalerrian ibillia. Onela mintzatu zan bera. Izparringietan gazte-leraz zetorrenez, alaxe emango dut:

"Yo preferí aprender un dialecto, identificado con el guipuzcoano. He traducido al inglés una gramática y el método de Oñatibia para enseñar el euskera a mis alumnos y lo he adaptado para el uso de los estudiantes de lengua inglesa". (Gaceta del Norte, 1980'go dagonillaren 28'an).

Eta onela mintzatu zana, Willian H. Jacobsen jauna izan zan. Emengo izkuntza-borrokaren berri bazekian jaun orrek eta Oñatibia'rena aukeratu zuanean, bazekian, noski, zergatik artzen zuan.

Oñatibia'tar Jon zana emen bere jaioterrian goraltzeko bakarrik ez dira, esan ditugunak. Ea aste osoko omenaldi au, Jon'en lan eta ekintza aundiak obeto ezagutzeko gertatzen dan eta, aintzakotzat arturik eta aietaz baliaturik, ea Euskerrari eragin aundia ematen diogun guztion artean.

Esanak esan, Oñatibia'ren irakasbidea oraindik bear bezala aztertzeke dago Euskalerrian: aurre-iritzirik gabe, otz-otzean eta euskera ikas-erazteko bidean lagungarri bat zenbateraiño ona dan neurtu gabe dago. Garaia litzake ortarako.

Gure Jon aundia, irripartsu ta langille etxikaitza, oso ere oso goian bedi betiko atsedenean zoriontsu. Baiña, goian bedi baita euskaltzaleen artean, eta euskal ikasle ta irakasleen artean ere.

Ala bedi ta besterik ez.

Gastañaga'tar Jesus



EUSKERAZKO AKATSAK ZUZENTZEN

- 1.—Ernio'n "BIAKRUZISA" egin dute... (EITB, 89'go-III-23'an)
Gurutzbidea, egin dute, kalbarioak egin dituzte...
- 2.—Prozesioak ospatzen dira... (EITB, 89'go-III-23'an)
Ospatu ez dira ospatzen, egin egiten dituzte prozesioak.
- 3.—Lau mila dolar artuko dute (EITB, 89'go-III-23'an)
Lau mila dolar artuko dituzte.
- 4.—...zerbait egiteko asmoa **ezertan gelditu da** (EITB 89'go-IV-2'an)
Ori ez da euskera! "Ezertan ez dira gelditu... Utsean gelditu dira...
- 5.—Ez da ezagutzen artu duten erabakia (EITB 89'go-IV-2'an)
Arazoa ez da "ezagutzea", jakitea da baizik.
- 6.—Ez da ezagutzen oraingo egoera (EITB 89'go-IV-2'an)
Ez da ezaguna... ez dakigu... ez dakite albistariak...
- 7.—Itsasoan ekaitza dago (EITB 89'go-IV-4'an)
Zer egingo ote luke, baldin ba'lebil? Ez da egoten!!!
Ekaitza soriu da... Ekaitza dabil... Indar artu du ekaitzak...
- 8.—Datorren astean ezagutuko da erabakia (EITB 89'go-IV-15'ean)
Zabalduko da... agertuko da.. Jakingo dugu... Jakitera emango dute...
- 9.—Ilketan parte materiala artu zuelako (EITB 89'go-IV-19'an)
Nolako "materiala" ote zan ori?
Iltzailleetako bat izan zalako... Ekintzailleetako bat izan zalako ilketan...
- 10.—"Suposatu..." (EITB ortan milla eratara, beti **suposatu** diote.
Ez al daukate itz egokiagorik, bearren erara erabiltzeko?
- 11.—"Okintzategia" ageri da Ernani'ko berebil batean.
Okindegia... ogitegia...
- 12.—Zenbat urte du neskatxa orrek? EITB'n Amatiño'k barra-barra.
Zenbat urte ditu.
- 13.—Abstentziorik aundiena ezagutu da (EITB 89'go-III-15'ean)
Norbaitek ezagutzen du, lenengo. Gaizki dago, beraz.
Besterik, obe litzake onelatsu: "Ezagutu duten abstentziorik aundiena izan da... Jakin dugunez, orain arteko abstentziorik aundiena izan da..
- 14.—Konzierto Sakro bat eskeiñi dute (EITB 89'go-III-15'ean)
Elizako musikaldi bat eratu dute. Eskeiñi bakarrik?

EUSKERA



LAN TZEN

ERRIETAKO IZENAK

Errien izen-aldaketa bat izan da, Euskaltzaindiak onartu duena.
Oien artean dago:

LAZKAO

LAZKANO'ren ordeaz. Baiña, istorian zear, **Lazkao'ko** Jauntxoak beti izan dira SEÑORES DE LAZCANO. Eta, **Laskano'koak** ziran Oñaztarren gidarietako batzuek.

Bada "Cámara de Comptos" deritzan Iruñako etxean, XIVgarren mendeko dokumentu bat. Bertan adierazten dira Lazkanokoen aurka naparrek egin zuten gerraren zeaztasun guztiak: zenbat jende eta zer motakoak, zer material eta nolakoa, baita guztien gastuak ere.

Esaera au ere agertzen da: "quod navarri expugnaverant Fortalezam de LAZKANO".

Beraz LAZKAO "Lazkano" aoskatzeko (fonetismo) era bat besterik ez da. Eta, orretan ere, uts egiten du, erriak ez bait du LAZKAO esaten, LASKAU baizik. Ataundarrek bazuten esaera au: "Lazkau, ikusita nazkau". Bai lazkautarrek onela erantzun ere: "Ataun, erreta jazaun; egosita miñe; Ataun ipur-zikiñe".

GALDAKAO

Au ere **Lazkao'ren antzekoa** da: GALDAKANO AOSKATZEKO era bat. Baiña, bada Lekeition kanta zaar bat itz ori bear bezala esaten duena. Onela dio:

"Mari GALDAKAÑO
zozpaletan,
zozpalak batun-da
kaka albarketan".

Ez du Galdakao esaten, Galdakaño baizik.

Beste alde batetik, berriz, or daukagu Getariko ELKANO auzoa. Ori or dago osorik LAZKANO, GALDAKANO eta abarrek bear zuten bezala.

Anes Arrinda



TXOMIN AGIRRE, KOLOKAN?

"Non dago?, non aut?, ez ote da auxe neretzat lengo Agirre?"

Txomin Agirre, Ondarru'n, 1864'ean sortu, 1888'an apaiztu, 1919'an Euskal eta 1920'an zendu.

"Auñamendi'ko Lorea", "Kresala", "Garoa" eta "Ni ta ni" (bukatzeko) eleberrien egille, garai artako aldizkari askotan idazle, eta elizetan idazlari.

Gizabeteko, kristau zintzo, abade gartsu, idazle? Idazle... Orra or laugarren uztarketaren eziña: "idazle" izenari, zein izen-lagun dagokio? "Garoa" bakarraren idazletzat arturik ere, ezin, ba, danon gogobetekorik ezarri. Izan ere nabarmena da iritzi-emailleen adostasunik-eza. Eredutarako ale batekin aski ba'degu, ona emen bizpairu.

"Kritika literarioarentzat, obra hau da gure Literaturako gailenetakoa; nobela bikaintzat ematen da. Azken aldi hontan, alabaina, akatsik aski ari zaio egozten... giro eztegia, pertsonaiak artifizialegiak, kontaketa-aren mataza ahula, erromantizismo gehiegi... (K. Otegi)

lido beretik:

"pertsonaiak lirikoegi dira egiazko izateko (I. Sarasola)

Bestalde, "pertsonai" ei bereziki gagozkielarik, onela A. Villasantek:

"Azken bolara ontan Garoa maxiatzea moda bezela bihurtu da. (...) Dena dela, Garoak ere baditu personaje batzuk oso errealak eta bizi biziak, gure erriko arrobotik artuak: Ana Joxepa ta Patxiko sendatzailea, Peru Odolki, Moxolo Potolo ta, erriko zalduntxoak ta... Txomin Agirre berak aitortzen zuen (Olai-zola jaunak dionez) Garoako lagun batzuk eguneroko bizitzatik artu zituela, berak bere inguruan ezagutu zituenak zirela, ez Oñatin, baiña bai Zumaian ezagutu zituenak. Joanes, Malen ta Iturraldeko Jose ere ez nuke esango guztiz idealak direnik".

Zertan gera? "pertsonaia artifizialegiak" ala "personaje errealak"? Buru bezainbat aburu. Berbera Orixe'gana jo ba'dezagu.

"Gero Orixeren hauzia sortu zen, Orixe oraindik bizi zela. (...) Gonbarazio baterako: J.M. Leizaolak "El poema Euskaldunak de Orixe será para siempre un hito, una cumbre en el desarrollo de la poesía euskérica... Dentro de la poesía vasca, la obra máxima sin duda alguna". idazten zuen 1952'an. Hamabost urte eskas geroago, San Martinek: "...Gaur, zer luke txarrik, esango banuke (sic) Mikel Lasaren poematxo bat naiago dudala Orixeren atalik onena baino?" (...) Gonbara L. Mitxelenaren eta I. Sarasolaren Literatur Historiak. Orixe batek besteari zer alde ateratzen dion...



Sarasolaren iritzian, Orixeren obrak ez du "euskal literaturako mailarik garaienean ezartzeko ai^Pa balio. Mitxelenak, aldiz, Orixeri deritza "acaso... el autor más importante de toda la literatura vasca" (J. Azurmendi).

Baiña —eta ontara iritxi nai nuen— Mitxelenak bere iritzia eman ez ezik, berak eta bestek emaniko iritzien batera etorri eziña ere adierazten du. Begira nola:

"... zerbait berri agertu da gure artean gerra ondoko urte oetan: bestelako pentsabidea, bestelako bizimoduen eskutik, giro-aldaera larria erriko eta atzerriko aize berrien eragiñaz. (...) aldakuntza orrek —usteak, sinisteak eta ospeak astindu dituen balioen trukaera izanik— ez dio "Orixe"-ri ere, ustez edozein eztabaidaren gainetik geneukan "Orixe"-ri berari begiramenik gorde".

Ez Orixe'ri, ez Tx. Agirre'ri ez beste zenbaiti nioke, neurez gei al ba'neza.

Sinisteak ere lanak ematen ditu. "Arrimenez eta espantuz" batek baiño geia-gok esango du berekiko: "giro-aldaera dala-ta, Literatura azter-baea bera ere aldatu? Nork diosku egia? Giroa aldatu aurretiko iritzi emailleak ala aldatuz gero-koak? "Nori berea" ba'da zuzenbidea, zertan datza auzi onen konponbidea? Adituek diotenez, jakintza-bidean, Literatura-jakintzan:

"La obra literaria vive como tal y en sí misma. Incumbe a la ciencia de la Literatura (...) comprender la esencia de la obra; haciéndolo así ya no estará expuesto al peligro que, durante los últimos decenios, con frecuencia parecía inevitable: el peligro de que la obra de arte fuese arrebatada por el remolino de un relativismo sicológico o histórico o nacional". (1)

Besteak beste, nork eta noizekikoetan geiegi sartzen nunbait...

Dauden-daudenean aldatu nai izan ditut erderazko itzok, nere ber-itzulketak, artaratuz gero, jatorrizko mezua batere illun etzezan. Doixtarrari jaulki zaionez, auzipean ez gaude euskaldunok soil-soilik.

Felipe Yurramendi

(1) WOLFGANG KAYSER, Interpretación y análisis de la obra literaria (Versión española de María D. Mouton y V. García Yebra), Ed. Gredos, Madrid, 1972, p. 517.



EUSKERA DALA-TA (II)

Gure buruak, itargia lez, ez dabe iñoiz be geldirik egon bear. Urteak joanez, zaartu arren, begoz beti lanari ezarriak. Au be bai: zaarrak bebiltz orretan aurrelari; ez, urtez zanpatuak izanarren, bekioe eguneroko lanari. Niri, larogei urte egiñak ditudala, itandu oi dauste, ia noiz ariuko dodan atsedena. Eta nire erantzuna: "Gero daukagun naiko denpora atsedenerako". Mundua obetzeko ez al gagoz emen?

Euskerazaintzakuok, zaar eta gazte, illero alkartzen gara Deba'n, euskeraren alde lan egiteko, aspertu barik alkartu be. Itz-egin, gaiak azteriu ta eztabaidatu daroaguz gauzak. Zer, baiña? Erri-euskerearen akademi danez, erriak zelako izketa darabilen —aditz, joskera, itz jator eta abar— ikusi ta aztertu, beste asko ta zer askoren artean. 10 t'erdietatik ordu batak arte, illaren azken-larunbatean.

Euskerazaintzak, orrez gaiñera, liburuak argitaratzen ditu, naikoa ugari, jakin-garriak benetan, naita bear beste saltzen ez diranak. Zergaitik saldu ez? Atxerik eta olako moda barriko biurrikeririk erabiltzen ez dalako, zabalkunde barraban eta saltzaille askoren ustez, liburu oneik gai errezegiak dakazelako. Egun batzuk dirala Donostitik ibilli nintzan eta liburu-denda baten euskerazko liburu pilloa salgei eukien arren, errezegi oneitakorik ez eukien bape bere. Atxaki suster-bakuak batuari leku emoteko.

Olakoa, barriz, taturik be ez daukala diño erriak, ez liburuetan datorrena, ez ziñe ta telebistetan emoten dana. Gure liburuak, beraz, ezelango gogorkeri barik, or daukie saltzeko zelai bikaiña; gaur, ikusi, liburu bat erostekutan, erosi eurretik, jakin-miñez, onela itaun egiten asita gagoz: "Liburu ori, zelan dago "batuan" ala erri euskeran?" Oraño eldu garean!

Lenago, orain ogetabost bat urierarte, ez egoan olakorik. Alkertasun gozoan, dañok giñoiazan baturantza, polito polito ta zarata barik, alkar ulertzeko modo baketsuan. Azkul zanak, gizaseme gotor jakintsuak, **gipuzkera** osotura nai eban jo, euskera errez batera, euskalki onek daukazan akatsak urritu, beste izkelgiekaz osotu ta aberastu ta guztiontzat eredu egitera, ain zuzen be. Asi ta ekin, orretan, konturatu barik elduko giñan, leen, orduan eta orain opa dogun euskal batasunera. iñortxo be zapuztu barik, arek eta onek, guztiok ditugun eskubideak onaturik, guztiok alkar maite izanik, giza-legeak eta norbere izkuntzak eskatzen dauanez, jokaturik.

Orretarako gogorik, alan be, ez da ikusten. Ogetaz urieak, Baiona'ko ta Arantzazu'ko batzarretan onaturiko batua, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza ta beste erakunde batzuk, diruz eta egiñez, indartu ta errian on-eritxiz jarteko asmotan egiazki saiatzen diranak. Zatiketa izugarria sortuaz gaiñ, euskal idazle ta erakusleen artean gerra sortzea, erriak euskera zapuztea, gurasoak eta seme-alabak alkar ez ulertzea, euskalki ta dialektu batetik bestera daukagun alde koskorra gizenago egitea, besterik ez dogu jadetxi. Krutvig jauna, batu-zaleen artean batu-zaleena, sorizaille ta aldezle amorratu, Gernika'n "Alegría" aretoan, Arana-Marti-

ja'ren Euskaltzaindian sarreran egindako itzaldiak entzun ondoren, "Gaur" egunkarian egiñiko salakuntzan gogor be gogor agertzen da; egi-egiaz latz sekulakoak, erriak eta eskolatuak esku-zartaka artu, fotokopiaz atera ta asko zabaldu dana.

Eta, oraindik denpora da-ta, zergaitik ez dira artzen, buruak bigundu, apalazi ta alkarri eskuak emonaz, auziari asiera egokiago bat emoteko bideak? Konturatu gaitezkan zelako kaltea dagitsogun geure izkuntzari, eta euskal arimari; zergaitik zentzatu ez eta bide-kurutzean ezkerrekoa laga ta eskoikua artu? Ainbesteraiño eldu ete da gure arrokeria? Madarikaluko gaitue ondorengo gizaldiak.

Kultura bide ederra da batasunerakoa. Leengo mendearen azkenerarte, gitxi ikasten zan gurean, banakak baiño ez idatzi ta irakurri; ezta, ba, arrigarri gure euskera gaur naiko zatitua aurkitzea. Aurrerantzean ez da orrela izango; gaur ikasi egiten da, espaiñera, írantsesa, euskera. Eta erri batzuk eta izkelgi batzuk tarteko izanik be, ez dago ainbeste eragozpen alkar ulertzeko. Euzkadi'k onezkerro nekez atzera egingo dau, zori obe edo txarragoarekin, aurrera egingo dausku beti.

Irakurritz asko ikasten, eta ibilliz errien oiturak eta izkerak ikusi ta entzunez, eurakaz jabetu. Irakurri daigun, bada, bizkaieraz, gipuzkeraz, laburdieraz, zuberoraz, eta ibilli noizik-bein, kanporatu bage, geure errietan daukaguzan lur, zati, mendi-ibai, oroigailu ta abar miresten. Eta orduan esan zainke: "Bat gara bai izkeraz erriz lez". Or euskalkien auzia be gainduta. Orrela egin dabenen auto riza dozue au. Ez daigun izkelgi bat be saiestu, irakurri ta ikasi baiño, danak dira gure asaben arima zati.

Azken illotan, naikoa zurrumurru dabil, batua dala-ta, bazterretan. Zer, baiña? Txarra ete da ogei urte oneitan, a indartu ta oiñean ipiñi nairik burutu diran indarketa zabalak? Lan guzti ori alperrik? Erriaren eta jakintsu askoren eritxiz, alperrekoa. Nik ez dot ontzat artzen, batzarretan diñot, beti besteen esanaren aurka agertzen dana: ez dakit zergaitik, beti aurka. Ez naz ezezkor, eta ez dot ondo ikusten, asmorik bikaiñena izan da be, esan orri "bainaka" diardauana. Orrek ondoren txarra dakar; olako aurkalaria ezer onik egiteko ez dala gauza deritxat; dalako asmoa erakutsi ta aurrera eragiteko gai danari be oztopoak jarten dabillena, ezin da niri gogoko izan; ezezkorraren aurrean otzitu egin oi da, eta or asmo eder bat, laguntasun ezez alperrik galduta.

Askotxo dira, euskera galduaz doakigula-ta, bai miñez eta bai lumaz, beti ortara diarduenak. Antxiña baten, gure errietan, norbait ilten zanean, oitura zanez gaubela egiterakoan, ildakoaren biriuteak eta egiñ onak kantuz iragarten ibilli oi ziran, leenengo illaren etxean eta gero gorpua eleizaratzean. Ekandu ori galazota agerizen da Gernika'ko Foruan. Erostariok, Azkue jaunak diñoanez, Elantxobe'n ezagutu ziran azkenengoz. Gaur-egun biztu egin ete jakuz? Negarra baiño lana obe, gure euskerearen onerako; illeta joaz, egia, lo dagoana itxartu egiten; gaur, baiña, olan uste izanik be, askok eta askok leen baizen gor jarraitzen. Zetako, beraz, alperrik izerdia bota? Orren orde, lan daigun euskera jaso, obetu ta indartzen, aren ta onen asmoai be aurrera eragiñez.

Gaur-egun naikoa euskera ikasi oi da. Ez ⁱgitxiren kexa, ostera, auxe da: umeak ez dira kalean euskeraz mintzatzen. Osorik alan be ezda egia: gaur goizean ni Zornotzako parkean zear niñoiala, or ume-aldra bat euskeraz; sartu naz denda baten eta nik itaun: "Oneik umeok, zergaitik euskeraz?" Eta dendariak: "Nire umeak beti egiten dabe euskeraz, etxean eta kanpoan". Aundi azten diranean, erderara joten dabela? Adiñekuen erruz askotan. Oneik erderaz eta areik euskeraz. Zentzun pizkat ba'genbil, dakigun guztiok euskerea erabilli bear genduke ezpanetan, gazteak zein adiñekuok.

Salakuntza gogorra: gazteen ustez, gaur gizartean gaitz, akats eta lotsakizun askoren errua, zaarrena ei da; sarri eztabaidatu dot au euren artean, eta azkenez eurai emon bear izan dautset errazoia. Erreza da ezetz esatea, baiña egjari

bera emoteko eskuma eskua bular gaiñ ipiñi ezkeroz, zer esango leuskigu barruak? Abuztuaren 26'an, Deba'koa amaitu ta gero, Amoroto'n neukan zeregiña betetako, ara jo neban; mutiko aldra alaiaz eleizpean zarata utsean euskeraz; ara zuzendu giñan txoferra ta biok. Euskerea zan aren jolas-izketea. Luzaro jardun genduan eurakaz, eta egin itaun guztiai areik bai erantzun argi zorrotza! Zenbat neska-mutiko ziran eskoletan (eskola bi daukiez); zenbat ikasi, zelako maistrak eukezan; pozik ala beartuta ebiltzan ikasten; zelako notak ateraten ebezan; aserrerik ete eben, auzkarik egiten ete eben, nire denporatan lez, eleizaldekoen eta urriñeko baserrietakoen artean; abadea, pelota partiduak, probak, jaiak, aari-topekarik... Oso argiak dira Amoroto'ko neska-mutillak.

Eleiz ederra da Amorotokoa, luze zabala; Martin deunari eskiñita. Uztail edo garagarrillaren 4'an ospatzen da bere jai-eguna. Barruan miretsi genduzan santuak, altarak, maillak, zutoin jagi artezak, autortegiak, jarleku barriak, korua, bateo-arria... Jainkoa otoiztu genduan, Amoroto langille, osasuntsu ta alkar maitasunean bizi dedin sekula sekuletan.

Kanpoan lau-bost itzul-inguru. Eleizatik urtenda ezkerretik daukagun artea miretsi genduan, nire gazte-egunetan oso mardul eta gaur, sabel-zabal, erdi iger-tua, baiña ilterik ez dauala nai erakusteko, oraindak adar guri ostoz berdez gainezka; beetik gora begira minutuak egin nitun bere aurrean. Aurrez aurre nire egufletan dotriñea, domeketan batez be, ikasten genkian egoitza, gaur txoko biurtua. Pentsamentu txar batzuk izan nebazan, baiña tira... Eleizeari bira osotuz, eskuman daukazu eskola barria, lenago neskatoen eskola zanaren lekuan; aurrez aurre beste neskatoen ikastetxe liraiña, baratz eta guzti; baiña frontoia urtxo jaso zalako, kerizpetan lez geratu zana.

Frontoia Bizkaia'n gitxi lakoa dozu Amoroto'n; egituraz kanpo ta barru, jasez eta jakituriz ornidua. Itxia da, pelota lekua ta proba lekua bertan ditula. Ertz baten jarrita, begira ta begira, luzaro egon gintzazan; mirestekoa da, izan be, erdian lez, zulezko zureri guzti ari eusteko, daukan taket antzeko zutoin mei luzeaa. Sei-zapi probarri, txikiak eta aundiak; bat ikaragarria, leen plaza erdian aurkitzenzana, nik ainbat igurtzi egin neutsozana.

Besteai ezer kendu bage, zoragarriak dira Amoroto'ko eleizaldeko etxeak, barri ta zaar, eta or-emen sakabanaturiko baserriak. Oleta ta ia Lekeitio'ko ateetaraño eltzen jatzu eleizate au, Mendexa ez-ezik Lekeitio bera begipe daukazula. Barriztatze aundiak egin dabez, plazan, kanposantuan eta etxe askotan; etxe barriak eregiten diardue eta zaarrak be, danak zuri-zuri, barri emoten. Illa bi lez dirala, Naparruako Goñi ibarretik ibilli nintzan ni, toki zardaiña, ezagutzen ez nabena; etxeak barriztuten ziarduan bertan eta langille pillo bati zergaitik ebiltzan orretan, agindurik ala euren kasa, itandu neutsenean, "bai ta ez" erantzun eustien. Goitik aginduta barriztatzen doguz antxiñako torretxe ta jauregiak, baiña besteak bako-txak zurizatuta dagoz. Ejenplu onaren frutua. Amoroto'n zelan? Eta erantzuna: "Ak egin jok eta nik zergaitik ez?".

Lekeitio'ra jo genduan, Amoroto'ri agur gozoa egiñik. Ba zan jenterik erri txanbillin onetan, berez eta giza-lanez zoragarria dan itxas-bazter onetan, Karraspio'n, portu inguruan eta Tala'n. Gu eleiz-ostetik, portu aurretik Tala'ra. Kotxe berdeak be, trankil egon bearra ba eukala-ta, ertzean itxirik, barrara begira jarri giñan, eguzkitan, urez ebiltzan, urez ebiltzan ontziño ta jolas-tresnak (potin, itxas-moto, trañneru ta abar) ikuskatzen; gaur modan dagozan marroka ta karelpian ebiltzan arreintxoak, ur-azpi ta gaiñ, begiz artu neirik. Ordu-erdi bat egin ondoren, kotxera barriko be.

Lau maillako koska igitean, ona ezusteko bat. Bost neskattilla amabi-amabost urtetakoak, elai antzera, gorenengo mailla kokatuak, eta nik berez-berez, "Euskerara ala erdera da zuen berbetea?" Erderaz", arein erantzuna. Eta nik, beti lez, berez-berezko erantzuna: "Baltzak orduan?" Eta areik: "Ez, gu ez gara baltzak, gu euskaldunak gara". Orrela luzaroko alkar-jarduna. "Guk ba-dakigu euskeraz,

diñoste, baiña ez ondo"; nik orduan: "Nunguek zarie, ba?" Eta bakotxak diraust nungoa dan: bi lekeitiarrak, bat bilbotarra, laugarrena Zeberio'koa ta bostgarrena Gasteiz'koa. Senide ta adiskide bostak. Konturatu nintzanez, oneik eta onakoak, sakatzaille bat ba'leukie, laster jarriko litzakez euskeraz gozoki berbetan.

Urrengo egunean, igandez, Belatxieta'n nintzan meza emoten, an artzain ibillitako Serafin izeneko artzaiñaren alde. Ara igondako moltzo bi erderaz, eta nik beingoan: "Zuok, zer zarie?" "Euskaldunak", diñoste. "Zer dala-ta orduan erderaz?". Danak mutu. Baiña, atera nebanez, an urrun bizi zan bat aurkitzen zan, eta euskaldunok uste eben, arek ez ebala euskerarik jakingo. "Aluak alakuak!" esango leukie ondarrutarrak.

Aita Onaindia



EUSKAL ABOSTEGIA: IXTERA JOKEREA

Gure aldizkari onen seigarren zenbakian asitako lanari jarraituz, euskereak dituan abostegi-arloko jokerak azaldu nai neukez idaz-lan onetan eta urrengoe-tan. Lan au bear ba'da, iralurlentzat gogaikarria izan leiteke, baiña euskerea ezagutzeko onuragarria dala uste izanik idatzi-bearrean aurkitzen dot neure burua.

Euskerearen abostegi-sailleko jokerak oneik izan daitezke: 1) Ixtera, 2) Gozo-tzera 3) Gogortzera 4) Surreratzearen arazoa 5) Galtzea eta 6) Antzeratzea. Zenbakirik zenbakira EUSKERAZAINTZA onetan arazo guzti aztertu nai neukez.

Gaur aztertzeke artu dodan arazoa, ixtearena, luzeena ta korapillotsuena dala uste dot. Eroapenez jokatu bearko dogu ba, bai idaztean eta ez gitxiago irakur-tean.

Ixtearen arazoa abots bakartien edo bokalen arazoa da. Ba-dirudi Nabarro To-mas'ek bere Fonetika edo abostegi liburuan diñoan lez, euskaldunak bost bakarti-ak edo bokalak oguzkeran zabalenetik itxienera bide laburragoa daukagula eta orregaitik bokalak errez aldatzen doguzala, lan onetan ikusiko dogun lez. Izan leiteke, baiña, oguzkeran zeatz esateko ardura gitxiago artzen dogula dirudi, batez be Euskalerriko bazter batzutan.

Arazo-barrura sartu baiño lenago oar bi egin nai dodaz: Azterketa au Bizkai'ko lurralde baten egiña da, Mungialde, Bermeo ta Ondarroa kontuan dirala. Beste lurralde batzutan, bear ba'da, beste jokabide batzuk izango dira. Jazoera oneik argitzeko neure Maixu-lan Txikia edo tesina daukat aurrean eta idaz-lan orretan lur-irudi margotuen bidez azaltzen dira jazoerak, baiña irudi orreik aldizkari one-tan agertzea ez litzake gauza erreza.

Gaurko gaia ba, abots bakartiak edo bokalak ixtearen arazoa izango da eta iru zatitan banatuko dogu lana: Zeintzaillea edo Mugatzaillea ipiñikeran, abots bakarti bi itz barruan alkartzean eta agokaldi edo silaba bi edo geiagoren artean izaten dan metaforia antzekoa.

ZEINTZAILLEA MUGATZAILLEA, IPIÑIKERERAN

Onetan Bizkaierea askoz aberatzagoa ta beste euskalkiak baiño. Beste euskal-kietan-aa> a, esaterako euskera-a> euskera, baiña bizkaieran -aa> ea> ia> ie> ii euskera> euskerea> euskeria> euskerie> euskerii> euskeri.

a azkenean dauken berbak

Zeintzaillea edo mugatzaillea ipiñikeran itzaren azkenak dituan aldakuntza' kontuan dirala, aurrera bide bat agiri da. Gipuzkoa'n **aa>a** eta au dala dirudi c txien gastatua edo aurreratua, Bizkaian, ostera aurrera egin da, geiago edo txiago. **Alabea, alabia, alabie alabi (i).**

Baiña gauzea ez ain zeatza. Aurrerabide onetan bide-kurutzeak dagoz.

Lenengo bidea au da: -aa> ea> -ia> -ie> -ii> i baiña erri batzutan (G< Maruri eta Laukinizén, beste bide au artu dabe. -aa> -ea> -ee> -e, bat€ Maruri'n. Onen bidea au da. **Gure alabe'k kotxe deko, orme obeto ei' da.**

-aa idazle zar batzuk erabili dabe, baiña errietan zearo galdu da.

-ea: Mailla au artu da bizkaiera idatzian eta errialde batzutan esan be egiten da, esaterako Txori-erri ta Arratian: **euskerea, alabea**.

-ia: Alabia, ormia, Mungialdean ipar-sortalderantz erabilten da (Gamiz, Fika, Larrauri, Meñaka).

-ie: Alabie, ormie; Furniz, Arrieta eta Bakio'n.

i (ii) Ondarroa'n, alabi, ormi.

e azkenean dauken berbak

Berba oneik lege bardiña beteten dabe, baiña asikerea **-aa (Alabaa)** barik **-ea** dabe, **etxea**. Orrelan **imie, kalie, etxie**, entzungo dogu erri oneitan: Arrieta, Fruiz, Bakio, Bermeo; **ume, kale, etxe** Maruri'n, **umia kalia etxia** Gamiz eta Fika'n. Ondarroa'n, ostera **umi, etxi, kali**.

i azkenean dauken berbak

Azkenean i dauken berbak, esaterako, **ogi, bei**, mugatzaillea ipiñikeran bide ezbaridiñak artzen dabez. Aurrerabide onek lau mailla daukaz.

Lenengo mailla: -ia>ie **ogia>ogie**. Onelan Laukariz, Mungia ta Laukiniz'en.

Bigarren mailla: -ia>ie>ii>i Maruri ta Gatika'n. **Ogi jan dot**.

Irugarren mailla: -ia>ie>ije (j **au** agogaiñeko dunduriduna eta iguzia da, (palatal, fricativa, sonora) Frantzeran **Je** esaten dan antzera. Erririk geienak artu dabe bide au. Gamiz, Fruniz, Fika, Arrieta, Larrauri, Meñaka, Bakio ta Bermeo: **ogije, begije, andije, idije, txikije** esaten dabe.

Laugarren mailla. Au Ondarroa'n baiño ez dot aurkitu. Emen J'ren ordez x artu dabe, agogaiñeko iguzi gogorra (palatal, fricativa, sorda) Frantzia'ko ch'ren antzekoa. Onen urrengo oinkadea estarriratzea izaten da eta J Españatarren antzekoa oguzten da Eleíxa>eleja. Au ez dot uste iñon esaten danik, bakarti-bitarteko lez beintzat.

o azkenean dauken berbak

Berbearen azkenean mugatzaillea ipinten danean **-oa** agertzen danean, aurre au da: -oa> -ua> -ue> -uu> -u. (Bide berezia da emen be Maruri ta Gatika'koa: -oa> -oa> -oe> -oo> -o **oillok, kamiñok, faltsok**) Erririk geienak -**oa** maillan dagoz, euskal-itzak diranean: **Kamiñoan doa kotxea, gure oilloak bizirik dagoz**, baiña Bermeo'n **-ue** egiten dabe. **Kamiñuen due kotxie, gure oilluek bizirik dagoz**. Eta Ondarroa'n **-u**.

Ori orrelan euskal itzak diranean, baiña ez da erreza izaten euskal itzak zeintzuk diran jakitea, antxiña artuak eta oraintsu artuak diranean **-oa** egiten da Kamiñoa, kongresoa, baiña zarren eta barrien bitartekoak diranean **-ue** egiten da: **panaderua, basue**, eta artuak barik euskal-itz jatorrak diranean **-oa** jarraitzen da esaten: **besoa**. Itzaren azkenean **-u** jade ori gure inguruko guztien erri-maillako jokerea da: Kantabrian, Asturias'en, Aragoi'n **panaderu** esango dautsue.

u azkenean dauken berbak

Inguuru onetako erririk geienak **-ia>ue** egiten dabe, **eskue, burue, dirue**, baiña Maruri, Gatika ta Ondarroan **u, esku, buru, diru**.

Arana'tar Sabin'en jokabidean **-b-** sartzen da mugatzaillearen aurretik, esaterako **buruba, eskuba**, eta ori ikusten da lenago idazle zar batzutan be, baiña inguru onetan errietan ez da age rtzen olakorik.

BAKARTI BI ITZ-BARRUAN JARRAIAN

Bakarti bi itz-barruan alkartzen diranean, geienetan izaten dira aldakuntzak.

-au->-eu. Esaterako **gaur>geur**, baiña Mungia'n, Gatika'n eta Ondarroa'n **gaur** entzun dogu.

Dau>deu: orrelan Arrieta, Meñaka, Bakio ta Bermeo'n. **dau** ostera dago laburtua da erri oneitan. **Ojije ekarri deu eta emen dau.** Dana dala beste berba batzutan ez da iñoz egiten aldakuntza ori, toki guztietan esaten da **lau** eta ez **leu** (zenbakia) bardin **au** erakuslea eta ez **eu**. Beste berba batzutan eta toki batzutan **-au->o** esaterako **daust dost**. Au be Gatika, Maruri ta Laukiniz'en **deust** esaten da. Ondarroa'n **esan dausta>esausta>esasta**.

au>o: Daust>dost. Onelan Mungia'n, Laukariz'en, Gamiz'en, Meñaka'n, Bakio'n eta Bermeo'n.

-au->-e- dauko>deko. Onelan erri guztietan baiña Laukariz'en **deuko** eta Bakio'n **dauko**. Ondarroa'n dakar.

-ea->-ia->-ie->-i- Aldakuntza oneik, itzaren azkenean mugatzalleagaz egiten ziran lez egiten dira itzaren barruan be, esaterako **bear>biar>bier**. **Bear dot>ber dot** Mungia'n, Laukariz'en, Laukiniz'en, Maruri'n Larrauri'n, Meñaka'n eta Bakio'n, Gamiz'en **biar**, Arrieta'n **bie** Fika'n Fruiz'en eta Bermeo'n **bi dot**, edo **diot**.

-oa- -ua- Goazen>guazen, baiña Maruri'n **gozan**, Gatika'n bardin.

-ai->-ei-Zaitut zeitut, baiña Mungia, Gatika eta Fika'n **zaitut** entzun da.

-eo->o: Egongo, eongo ongo.

• • •

AGOKALDI EDO SILABA BATETIK BESTERA

Jazoera oneri erderetan "metafonia" esaten jako, baiña ez da bardin-bardiña: erderaz itzaren atzerantza joten dau: **verso>versu >virsu**, azkeneko **u** orrek atzerago dagon **e** aldatu eta **i** biurtu dau. Euskeran, ostera aurrera jotzen dau: **guzurra>guzurre**. Jazoera onek aztertu doguzan errietan euskerea asko aldatzen dau eta arau ziurrak, ia beti betetzen diranak dauz.

-u-...a> -u-...e: Guzurra>guzurre, edurra>edurre.

-i-...a->-i-...e: Egia>egie, ogia>ogie, begia>begie. **Gatike Fike.** Ori toki-izenetan be utsik egin barik beteten da.

Arau ori berbarik berbara be beteten da: **zu ta ni>zu te ni, orritxu bat>orritxu bet, iru ta bi>iru te bi.**

• • •

OAR BATZUK

Gaurko ekiñaldi au amitzeko oar batzuk egin bear dodaz.

Ez dagigun iñoz esan erriak txarto berba egiten dauala, esan dagigun erriak berba egitean, sarritan, sarritan, ezagutzen ez dauzan arauak dauzala, baiña arau ziurrak eta zintzo beteten dauzanak, jakituriz beterik dagozan arauak, izkuntzalarientzat balio aundikoak diran arauak.

Abostegi edo fonetika arloan aurrerabidea ikusi dogu. Ete leiteke ori bide bat antxiñako euskerara "protovasco"ra eltzeko?

Euskera idatziaren eta berbaz erabilten danaren artean alde aundia dago. Idatzia erriaren euskerara urreratzen alegindu bear gara, baiña mailla bat jarten dala. Antonio Tobar'ek orretan asko goratzen dau Azkue'ren jokabidea.

Esandako jazoera oneik kontuan artu bear leukeez L.L. Bonaparte'k asi eban euskalki-iztian lan egiten dabenak. Arlo onetan Tobar'ek auxe diño: "Atlas lingüístico" edo izkuntzaren lur-iruditegia interesgarria litzakela, bai euskerea obeto ezagutzeko eta bai izkelki-iztia osotzeko. Menendez Pidal'ek be gurari bizia eukan lan ori eginda ikusteko.

OLAZAR'tar MARTIN'ek



GURE LANAK

Guarda espaldas

Gaztelanizko **guardaespaldas** euskeraz nola adierazi? Txit iztegi gutxitan ediren degu itz ori. Ona gure usta urria:

DRAE: **Guardaespaldas**, com. El que acompaña asiduamente a otro con la misión de proteger su persona:

Zenbait izkuntzetan: F. garde du corps; I guardia del corpo; GB bodyguard; NL lijfwachter; D Leibwächter; DK liwogter; N Liwokter; S Liwakt; SF henkivartija; H testér; YU tjelohránitelj; GR soomatophylakas; J gooi-hei; IL shomer-rosh.

Lexis: **garde du corps** homme chargé de protéger une parsonnalité contre des atyentats éventuels. (syn. "gorille").

Palazzi: **guardia del corpo** milizia scelta che ha l'ufficio di proteggere capi di State, alti personaggi, occ.

Gaztelaniskoa itzez-itz itzultzekotan **blzkarzaiñ** aterako litzaiguke, baiña itxuragabeko itza izango litzake; bizkarra eta sein guztia ere zaintzeko baita. Ingelesez, noderlanderaz, alemanez, prantzesez, italeraz, serba-krawataz, heleneraz eta hebreoz **soinzaiñ** edo **gorputz-zaiñ** adierazten due, baiña gure ustez erarik egokiena eskandi-izkuntzek (DK, N, S,) eta oien atzetik suemierak (SF) aukeratu duen bidea da: **bizi-zaiñ**. Auxe da gure aukera.

GUARDAESPALDAS = BIZIZAIÑA.

Fuera de servicio

Donosti-aurrezki-kutxa'ren etxe-orde batean irakurri genduan gaztelanizko **terminal fuera de servicio** nola adierazi euskeraz? Lenengo ítulkizuna **terminal** degu. Ona iztegietan ediren ditugunak:

DRAE: **terminal** (Del lat. terminalis) adj. Final, último, y que pone término a una cosa./Bot. Dícese de lo que está en el extremo de cualquier parte de la planta. "Hojuela terminal"; flores terminales./ 3 n. Electr. Extremo de un conductor preparado para facilitar su conexión con un aparato./ 4 f. Cada uno de los extremos de una línea de transporte público.

Graf: Dic. de Electrónica. **terminal de computador** Equipo de periféricos de un computador para entrada y envío de datos. A veces incorpora un tubo de rayos catódicos para representación visual. **Terminal remoto** 1. Terminal que se encuentra a distancia considerable del computador principal. Generalmente tiene acceso al computador a través de una línea telefónica u otro tipo de enlace de comunicaciones. 2. Unidad de control de entrada/salida y uno o varios dispositivos entrada/salida distantes de la unidad central de proceso.

Omnis: **terminal** (Inform.) Lorsqu'une imprimante est connectée à proximité immédiate d'un ordinateur, on dit qu'elle en est un **périphérique**. Lorsqu'elle est placée à distance et connectée en particulier par l'intermédiaire d'une ligne téléphonique, on parle de périphérique éloignée ou de **terminal**.

E: terminal de datos; **F** terminal; **GB** date terminal; **D** Datenstatio; **E** terminal de visualización de vídeo; **F** terminal de visualisation; **GB** video display unit; **D** Datensichtgerät.

Euskeraz esateko 'terminal de datos = **ezaguki - jakitunea** esanenezake; eta terminal de visualización = **ezaguki - ikusgailiva**.

Baiña Aurrezki-kutxaren adierazpena besterik zan: **Erabilpena ezineko terminala** idatzirik zegoan leiatillan bezeroekiñ itzegiteko iñor etzegoala esan naitzuan; beraz **ventanilla cerrada. = leiatilla itxia**. Ona beraz zertzu atera zaizkigun:

TERMINAL (DE DATOS) = (EZAGUKI-) JAKITUNEA

TERMINAL DE VISUALIZACION = EZAGUKI - IKUSGAILLUA

VENTANILLA CERRADA = LEIATILLA ITXIA

"Este muchacho es grande, pero su hermano es todavía mayor"

Gaztelanizko esate au:

Nola adierazi euskeraz?

Ona Real Academia'ren iztegiak diona:

todavía (De toda y vía) adv. t. Hasta un momento determinado de un tiempo anterior. "Está durmiendo todavía" /2 ant. Siempre, en todo tiempo. /3 adv.m. Con todo eso, no obstante, sin embargo. "Es muy ingrato, pero todavía quiero yo hacerle bien". /4. Tiene sentido concesivo corrigiendo una frase anterior. "¿Para qué ahorras? Todavía si tuvieras hijos estaría justificado". /5. Denota encarecimiento o poderación en frases como la siguiente: "Juan es todavía más aplicado que su hermano".

aun (Del lat. ad hus) adv. t. **todavía**, hasta un momento determinado. / 2.adv.m.

todavía, no obstante, sin embargo. / 3. **todavía**, en sentido concesivo. /4. **todavía** en sentido de encarecimiento o poderación. / 5. Denota a veces idea de encarecimiento en sentido afirmativo o negativo. Se escribe con acento cuando puede substituirse por **todavía** sin alterar el sentido de la frase. "Aún está enfermo, está enfermo todavía". En los demás casos, es decir con el significado de **hasta, también, inclusive** (o **siquiera**, con negación), se escribirá sin tilde. "Te daré cien duros, y **aun** (hasta) doscientos, si los necesitas; "no tengo yo tanto, ni **aun** (ni siquiera) la mitad. / **aun cuando**, los. conjunt. advers. **aunque**.

Todavía itza naspilgarría da. Euskeraz bi eratan itzul genezake: **baño** naiz **eraindik**. (**Aún** itzarekiñ ere gauza berbera gertatzen da). Ona beraz gaztelanizke esatea nola itzul ditekenez:

1) Mutill au aundia da, baiña bere anaia au **baño ere** aundiagoa da.

2) Mutill au aundia da, baiña bere anaia **oraindik** aundiagoa da.

Bigarren adierazpen au euskaldun garbientzat argi ta garbi dago, baiña gaztelaniz mintzatzen oiturik litzake daudenentzat onako au adierazi nai duala esan bearko litsake: "Mutill au oraindik ezta anaia aífnekoa, baiña oraindaño bezela azitzen jarritzen badu' bizpairu urte barru anaia baño ere aundiagoa izango da". Gaztelaniz: "Este Muchacho **todavía** no es tan grande como su hermano, pero si sigue creciendo como hasta ahora, dentro de dos o tres años será **todavía** más alto que su hermano".

Guzti onek zerr irakasten digu? Gastelaniz pentsatzen duanak euskeraz nola esan asmatzeko lan gaitza edun lezakela. Beikeau'k aspaldi idatzia beti gogoan eduki bear genuke: "Avant done que d'écrire, apprennes à penser". Euskeraz esateko: **ldatzl baño leen' oidozten ikasi ezazu**.

"La trainera A le lleva a la trainera B una ventaja de diez segundos"

Gaztelaniz esango litzakena adierazteko' igaz Donosti'ko estropadetan beñ eta berriz eta berriro "amar segundoko **erronta** atera dio" entzun genduan. Itxuraz ostiko-jolas edo fuboleko "El Real Madrid irá a Alemania con una renta de dos goles" bezelakoak ainbeste aldiz entzun eta irakurri duanen bati **ventana** eta **renta** gauza bera dírala, bururatu zitzaion. Ona R. Academia Española'ren iztegiak (DRAE'k) zer dion:

renta (Del lat. *reddita*, ínl. por *vendida*) Utilidad o beneficio que rinde anualmente una cosa, o lo que de ella se cobra. / 2. Lo que paga en dinero o en frutos un arrendatario. / 3. Deuda del Estado o títulos que la representan. / 4. V. **hacimiento de rentas**.

ventaja (de *aventaja*) Superioridad o mejoría de una persona o cosa respecto de otra. / 2. Excelencia o condición favorable que una persona o cosa tiene. / 3. Sueldo sobreañadido al común que gozan otros. / 4. Ganancia anticipada que un jugador concede a otro para compensar la superioridad que el primero tiene o se atribuye en habilidad o destreza.

delantera (...) S. Espacio o distancia con que uno se adelanta o anticipa a otro en el camino. **Coger, ganar o tomar la delantera**. Adelantarse cuando se compite en velocidad. / Aventajar a alguien, ponérsele delante. / 3. Anticiparse en una acción.

Zenbaít izkuntzetan:

F. La trainière A devance en dix secondes á la trainière B.

GB. The smack A is ten seconde ahead of the smack B.

D. Das Sehleppnetzboot A geht zehn Selunden vor das B.

Eta euskeraz nola esan diteke? Besteak beste' onako bi esakerok egokiak dirala uste degu:

1) A trañeruak B trañeruari amar segundoko aldea atera dio (edo **kendu dio**).

2) A trañerua B trañeruari amar segundo aurreratu zaio.

3) A trañerua B trañerua baiño amar segundo lenago doa.

Drogería

380. Gaztelanizko **droguería** euskeraz nola adierazi? Iztegietan ikusten danez' orain **droguería** esaten zaien dendaentzat itz ori ezta izen egokia. Ona iztegi batzuk zer dicen:

DRAE: **droguería** Trato y comercio de drogas. / 2Tienda en que se venden drogas.

Droga Nombre y genérico de ciertas substancias minerales, vegetales o animales, que se emplean en la medicina, en la industria o en las bellas artes. / 2. Substancia o preparado medicamentoso de efecto estimulante, deprimente, narcótico o alucinógeno. / 3. Medicamento. / 4 fig. embusto (...).

Enc. universal Herdera **droguería** Establecimiento para la venta de ciertos medicamentos de libre venta, cosméticos, productos químicos e industriales, etc.

Lexis: **droguería** Commerce de produits de toilette, d'hygiène, d'entretien, etc.; boutique où donde se tient de commerce. **Droguiste** Personne qui tient une droguerie (syn. marchand de couleurs).

The Oxford III. Dict.: **drug ster (U.S.)** chemiat's shop (tienda de químico = farmacia), que también se ocupa extensamente o principalmente en requisitos de limpieza personal (toilet), papelería y objetos de escribir (stationery), periódicos (newspapers), refrescos (light refreshments), etc.

Palazzi: **droghlere** chi vende al minuto (al por menor) droghe, generi coloniale o similari. Ikusten danez' izkuntza bakoitzean bestelako adirazpenak agertzen dira Kürschner: D Drogerie; GB drugshop; F droguerie; I drogheria; E droguería; L medicina tubema. Masriera: droguería: L ??? taberna; F drogada; GB grocery;

D Spezerei, Kolonialwaronhandel. Multilingüis S????? GB drugstore, chemist's; D Drogerie. Capitol's: GB druggist; 3 apotehere; NL apotheker; D Apotheke; F phar macien; I farmacista; E beticarie. Reget's College Theseu as: druggist = apothecary, pharmacist, chemist.

Beste izkuntza batzutan: D Materialhandlrz; DK materialhandel; M parýmeri, materialhandel; S dreghandel; SF rohdeskarpre; J yaku-hin-ten; SU moskatéllnyi magasín.

Euskal iztegietan ere eztegu argibide onak ediren: Muxika Pl.: sendagaitegi, drogategi; Euskararako (!) hiztegia: botin, drogeria. (Gogoratu "Kantoreño hauk gure herrian" bertso-sailleko laugarrena: Usoño hura zerbait bazela / ezta duda egiteko: / botikan ezta oihal-peza bat / guztien begietako... / orren nahi dut pollita zela, / perfeita ene gustuko; / galdu dut eta bizi naizeno / ni enaiz kontsolatuko. Izan ere' Iparraldean **botika** prantzezeko **boutique** baita); Muxika L.M.: garbi

Au da guretzat ia-ia erdiz-erdi asmatu duana. Baiña pinturak, argizai eta dirdirgarriak eta abar' garbigarri baiño geiago txukungarri dira; eta garbitzea ere txukuntzea dan ezkeror' gure aukera onako au izango da:

DROGUERIA = TXUKUNGARRI - DENDAA.

Convivencia

381. Gaztelanizko **convivencia** nola adierazi euskeraz? Ona iztegietan ediren ditugunak:

DRAE: **convivencia** Acción de convivir. **convivir** (Del lat. convivere) Vivir en compañía de otro u otros, cohabitar. **cohabitar** (Del lat. cohabitare, de **cum**. con, y **habitare**, habitar) Habitar juntamente con otro u otros. / 2.Hacer vida marital el hombre y la mujer. **Habitar** (Del lat. habitare) Vivir, morar en un lugar o casa. **Morar** (Del lat. morare) Habitar o residir de asiento en un lugar. **Coexistencia** Existencia de una cosa a la vez que otra u otras.

El pequeño Espasa: **coexistencia pacífica** Principio según el cual, Estados con si temas antagónicos conviven, aceptándose mutuamente.

Arrigarri bada ere' prantzesez eta ingelesez itz au zeatz izultzen duanik ezta. Appleten-Cuyás: **convivencia** act of living together. García-Pelayo: **convivencia** Vie en commun, cohabitation / coexistence.

Palazzi: **convivenza il** convivere; **coesistenza** l'esistere insieme; **coabitazione** il coabitare; **coabitare** abitare insieme. **contubernio** (Del lat. contubernium, composto de **cum** e **taberna**) nella antica Roma, la tenda militare e il gruppo di soldati che vi alloggiava./ T(ermino) giur(idico) arc(aico) unione tra due schiavi o tra uno schiavo e una persona libera. / p(er) est(ensione) coabitazione illeggi tima.

Catalanez: convivencia; portugesez: convivência.

Zenbait izkuntzetan: NI samenleving; D Zusammenlebez; DK, H, S samliv; SF yhte isolámá; H együttelés; P wspólzycie; CS spoluzivot; YU zajedno zivot; SU sovnmjés naja zhizñ; R coexistenta; GR symviesis; J kyeodoc sei-katsu; IL xajim betsavta (xajim = bizitza; batsavta = alkarrekiñ, alkartean, baltsan).

Muxika'tar Pl.'ren iztegiokoak ikusirik' gure aukera bestelakoa da, german-izkuntzena bezelakoxea: **alkar-bizitza**.

CONVIVENCIA = ALKAR - BIZITZA.

Obras públicas y Urbanismo

Gaztelanizko **Obras públicas y Urbanismo** nola adierazi euskeraz? Ona iztegietan ediren ditugunak:

DRAE: **obra pública** La que es de interés general y se destina a uso público, como camino, puerto, faro, etc. **urbanismo** Conjunto de conocimientos que se

refieren al estudio de la creación, desarrollo, reforma y progreso de los poblados en orden a las necesidades materiales de la vida humana. **público, ca** (Del lat. publicus). Notario. patente, manifiesto, visto o sabido por todos. / 2 Vulgar, común y notado de todos. "Ladrón público". / (...) 4. Perteneciente a todo el pueblo. "Vía pública". (...) 9. Común del pueblo o ciudad. (...).

Zenbait izkuntzetan: P obras públicas; F travaux publiques; I lavori pubblici; GB public works; NL openbaar arbeiden; D öffentliche Arbeiten; N offentlige arbeider; S offentlig arbete; SF julkinen tybnteke; H nyilvanaset munkak; P społeczny roboty; CS veřejny pfaci; SU obshchijestvjenye rabóty; GR deemosles ergasies; J koshuno hataraki; Il 'avoda tsibarijot.

Euskerazko itzulpena erreza da: "público" = **erriaren** dan'ezkero trabajos públicos = erri-lanak; Jaurilaritzaren "Hitz-bilduna" k ere **herrilanak** eta **herriekin-tza-lanak** damazki.

Bigarrena z DRAE'k onako au die: **urbanismo** Conjunto de conocimientos que se refieren al estudio de la creación, desarrollo reforma y progreso de los poblados en orden a las necesidades materiales de la vida humana. Iñolaz ere' "urbanismo" itzaz adierazi nai dana ezta "conjunto de conocimientos" dalako ori. Lexis iztegiak diona egokiago degu, itxuraz: **urbanismo** (1842, urbanité; 1910) Ensemble des mesures techniques, administratives, économiques et sociales qui doivent permettre un développement harmonieux, rationnel et humain des agglomérations. Au gure ustez askoz ere egokiago da. Eta ori euskeraz adierazteko' aipatu degun "Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma" k dion **obras de urbanización = hirigintza-lanak** itzulpenaz ederki adierazia dago.

Gure 151 garren itzulkizuna **obras públicas** zan, eta gure itzulpena **baltzalan** izan zan; **guztientzako** edo **guztien arteko lana** adierazteko txit egokia litzake.

Ona beraz gure aukerak:

OBRAS PÚBLICAS (= TRABAJOS PÚBLICOS) = BAL TSA - LANAK, ERRI - LANAK.

URBANISMO (TRABAJOS DE URBANIZACIÓN) = IRIGINTZA (= URIGINTZA bizk.); (IRIGINTZA - LANAK).

Bazar

Gaztelanizko **bazar** nola adierazi euskeraz? Ona iztegietan ediren ditugunak:

DRAE: **bazar** (Del persa **basar**, mercado con puertas y cubierta) En Oriente, mercado público o lugar destinado al comercio. / 2. Tienda en que se venden productos de varias industrias, comúnmente a precio fijo.

Lexis: **bazar** (pers. **bazar**, marché public) 1. Marché public couvert, en Orient et en Afrique du Nord.- 2. Grand magasin où l'on vendait toutes espèces de produits manufacturés (le mot est de plus en plus remplacé par **grand magasin**, **supermarché**; ou par des noms propres (raisens sociales): Uniprix, Monoprix, etc.).

Palazzi: **bazar** (daI pers. bazar, mercate) emporio di merci d'ogni genero, per lo piú a prezzo fisso. / mercate dei pesi afrieaní e orientali.

Zenbait izkuntzetan; P grandes armazens; F grand magasin; E grandes almacenes; GB department store; NL warenhuis; D Warenhaus; S varuhus; IS várn-hús; SF tavaratale, suurmyymälá; H árukás; PL dou tewarewy; CS ebehední dům; YU rbbno kuéa; BG univermág; R magazin universal; GR emporikés oikos; TR magaza; J hyakka-ten, supaa maakette (super market), depate (department store); IL (hagut-) kal-bo.

Geienek **salgaltxe** esaten due (NL, D, S, IS, H, PL, CS, YU, GR), beste batzuk oro-denda (BG, SU, R, J,) beste batzuk **denda aundi** (E, F, SF). Adierazi bear deguna ezta **salgaltxea**, ortarako euskaldunik geienek **denda** esaten baitegu;

oro-denda geiegitxe esatea litzako, **bazar** edo **grandes almacenes** dalakoetan ezpaita etxeak naiz zubiak egiteko altzairurik saltzen, ardirik eta beirik ere ez. Azkenean **denda aundi** besterik etzaigu gelditzen.

"Euskera" Euskaltzaindiaren aldizkarian, 1974 (XIX) 119 aiekan asirik' **aundi** adierazteko **-arr** atzizkia aski erabilia dala adierazi zan. Esate baterako' **aldaarr**, **maldarr** = **malkarr**, **ugarr** (ur **arr** = ur **aundi**), **zumarr**, **batzarr** (=batze **arr**), **biltzarr** (**biltze arr**), **deiar** (= **dei aundi**). Ori ontzat jotzen badegu' bear genduan itza sortua degu: **denda arr** = **DENDARR**. Orra laburki eta argi esateko bidea; prantze-sezko **grand magasin**, gaztelanizko **grandes almacenes** eta ingelesezko **department store** baiño laburrago, eta egokíago ere bai: **almacén**, **magasin** eta **store** berez ezpaitira **denda**, gauzak **pillatzeko** edo **biltzeko** tokia baizik. Ortarako euskeraz **-tegi** atzizkia badegu: **urtegi**, **simaurtegi**, **butanotegi** eta beste asko.

BAZAR (=GRANDES ALMACENES) = DENDARRA.

Zatarain'dar A.



EUSKERAREN ETORKIZUNA

Gure izkuntzaren egoera aztertzeko, ordua dute gorengo mailan aurkitzen diran jakitunak, batez ere, Euskaltzaindiaren barnean aurkitzen diran kideak, eta baita ere, irakaskuntzan diarduten erakundeak.

Egun onetan aritu dira Udako Ikastetxe Nagusiko ikastaroak, aurretik ere, izan dira euskeraren alde Korrikak edo lasterketak. Urte guztian ari dira ikastolak, euskeraren alde ikasketak zabaltzen; danen bearrean aurkitzen gera euskera indariu eta bizirik atara nai badegu Euskalerrian.

Ortarako diru asko bear da, baita ere langile ugari eta ez nolabaitekoak.

Jauntzargo edo Nausitzar aldi (dictadura) ondorenean, aalik eta lasterren eta al zan bezela egin bear izan ziran ekitaldiak, bainan ordua da zezenari adarretatik eutsiaz, gauzak bear litzazken eran zuzentzeko.

Laguntza eskatzen zaie euskerazaleei, batez ere Jaurlearitari legezkoa dan bezela, orrela izanik gero, irakaskintzan diardutenei bearraste al zaie euskera ontzen saiatu ditezten? Zeregin guzietan aurrera bidean joan nairik gero eta geiago eskakizun zorrotzagoak eskatzen dira gizalditik gizaldira azterketak egiñez, euskeraren alorrean egiten al dira? Baiezkoan bear luke, ezezkotan ote dan keskatuik nago. Orain berrogei ta amar urte (uste onetan nago beintzat) izparringi eta idaztietan euskera garbiago eta egokiagoa azaltzen zan (erri euskera zan) eta keskatuik nago karramarroaren antzera atzeruntz ote goazen, orrexegaitik azaltzen det nere keska, ikara, zalantza.

Ongi dago diruaren eskabidea egitea goiko agintariei baina baita ere oizkoa litzake goikoen ardurea eskakizun zorrotzagoak egitea eskuak zabaldu aurretik. Zenbat eta euskera ohea erakutsi, sari ohea, ori litzake egoki eta zuzen jokatzea.

Euskerak ez du bear politikarik eta margorik, gure izkuntza, euskotar guztiona degu, ikurrina dan bezela, danok gera bere seme alabak ez daukagu sartu bearririk politika gizarte auziak eta orrelakorik, aberats eta txiroen Ama degu, danok saiatu bear degu aal degun neurrian, txukun, garbi eta jator azalduaz.

Idazle bizibidea artuta daukazutenok, saiatu bearrean aurkitzen zerate garbi eta txukun idazten, bada gogoan artu bear dezute irakurleak zuen lanak irakurriz batera, ondo eginak badaude ikasiaz, aurrera egingo degu, txarto badaude berriz, batetik zuen kaltean dijoa bada aspertu eta naskatu egingo gera eta irkurtzeari utzi egingo diogu; irakurleak geitu bearrean gutxituz eta onela eman-go du gure Amak azkenengo arnasa.

Asarretu gabe entzun itzazue esan oiek, guzion onerako esanak dira eta.

Berdintzak, txarrak dirala esaten dute banan ona emen berdinketa bat: Gogoan artu dezagun inta-gari (arroz) eta txilista-illar (lenteja) zabal jaten ari gerala, eta onako baten, arri koxkor bat arrapatzen degu agin artean, lenengo itza, arri ori agotik ateraz, arri madarikatua esango degu eta jarraitu egingo degu jaten. Bigarren aldiz gertatzen bazaigu, gure itza gogortxoagoa izango da eta irugarren aldiz egokitzen bazaigu, Kaltzagorri deabruaren itz gogorrenak jaurti ta gero, bertan bera utziko degu jana, ondoen jarrita egun arren.

Antzerakoa gertatzen da, bat atsedenez euskeraz irakurtzen dagoanean eta lerro bat irakurri orduko, euskera barruan dagozan itz garbi eta jatorrak azaldu bearrean, erderazkadak azaltzen diranean. Zoritxarrez oraingo euskera batuan, ori euskera batua baldin bada beintzat, batzutan, gure leenagoko gaztainadieta-ko basoetan xixak baiño ugariago agertzen dira oietako erderazkadak.

AGERTUAZ

Sanitate arloan
Edizioa
Mediku
Lexikologia
Erabiltzeko modua
Pretentzioa
Soluzio magikoak
Posible izan dakion
Non segi
Soluzioak
Kontabilitate analitikoak
Erreabilitadoreak
Metodoak
Aditz aspektuak
Gimnasi erritmikoak
Entrenatzailea

BEAR LITZAKEN ERAN

osasun arloan
agerpen - argitaldi
osagile - sendagile
iztegi - iztegiaren araudia
erabiltzeko era
naikeria
erabaki miragarriak
aal izan dakion
non jarraitu
erabakiak
zenbakuntza azterbidezkoa
indarbertzaile - zuzpergileak
erak - ekasbidea - zendabidea
aditz aldikerak
soinketa neurrikoa edo aldizkoa
ezitzailea


Oien antzera, bukatu eziñezko itez azaltzen dira orri guziak.

Ez naiz arritzen, GAUR EXPRES 89-7-30 azaldu dan idatzia, Mikel Ayuso/Cari F. Acebo oiek Federico Krutwigeri egindako ikustaldian, onek esandakoak: Irakurri eta sakon-sokonetik gogoan arizekoak, benetan euskera maite badegu. Ogei urte galdu dira zetakeriz.

Noiz egingo dezute goiko mailtan zabiltzatenak, bai Jaurlaritzakoak, bai Euskaltzaindikoak danok, barrengo azterpen zendoa bañan apala egiñez, damakigun bidea utzirik atzera jo bear dan lekurarte, bide zuzen eta egokira iritxi a rte, eta danok batera berriro aurrera ekin?

Biotzez eskatzen dizuet guzioi.

Hilarlo Artolazabal



A. LINO AKESOLO

EUSKAL AZTERTZAILLE

A. Lino Akesoloren omenaldi onetan alkaritu gara bere euskal arloko ekintzen eta bearren barriarin bat entzuteko.

GIZONA ETA GIROA

A. Akesolo bere garaiko semea da, danok lez.

Euskera arloan, bere belaunaldiko ia guztiak legez, autodidakta izan da. Baina esangura onegaz: ez da joan unibertsitatera euskal filologia ikasten, ezta bestelako filologiari. Baina bere abade ikasketetan artu eban euskalzaletasuna eta zorrotasuna, gauzak aztertzeke erabili izan dau lan guztietan.

Eta gero an, or, emen egin zituen ikastaro laburretan, izan zituen maisuen irazteaz jarraitu izan ditu.

Nik uste dot bere berba batzuk laburtzen dabela aztertzaille lez egin dauan bear guztiaren oinarritzko printzipio bat: "Egia berez da iraultzaile". Edo amaseigarren gizaldiko karmeldar batek idatzi ebana berba oneekaz: "La verdad padece, pero no parece".

Gaur bere gogoan eukiteko da Akesoloren printzipio ori.

Giroari begiratu, bere bizitzako urterik onenak euskerarentzat eta euskal kulturarentzat, ilunak izan dira. Ixilean ba, bear asko egin eban.

Gerraurrean zeozer eginda gero, 1954rarte ia ixilik egon bearra tokatu jakon. Urte orretan asten da barriro A. Akesoloko "asaben baratza" jorratzen.

Beste guztiak legez, bere kontura aal dauan modura eta aal dauanean argitaratu ekiten deutso bearrari.

Eta beste guztiak legez, baiña askok eta askok baiño liburu zaar eta barri geiago irakurtzen dauz. Ainbat liburutegi arakatu dauz A. Akesolok. Bat aitatze-kotan, Donostian egon zan urteetan, "Julio de Urquijo" liburutegia arakatu eban. Baiña Ipar Euskalerrikoak be ikusi ebazan.

Olako lanak orduak eta orduak eskatzen dauz. Orduan eta gaur. Eta ixiltasunean ordu asko emon dauz A. Akesolok liburu artean. Ekatxa, urteak joan urteak etorri, aixe biuriu zan eta A. Akesolo'k bere, aixe orren bultzadatxoak artu ebazan. Baiña ia danontzat 1980 inguruan gauzak arteztu ziranean, A. Akesolo olatu gogor batek jota, or ibili zan bere iztegia bai urperatuko ez urperatuko. Azkenean, an or, emen, arrapautako arrantza ori iritxi da portura, euskaldun guztion mesedetarako.

A. Akesolo zorrotz samarra izan da eta batzuetan euskal arlo orretan zirujauena be egin dau. Baina iñori arrika, ez da ibili euskal errietako ia auzune guztietako mutikoak egiten eben lez, batzuk besteen kontra. Euskaldun batzuen zentsura etorri jako ganera eta arrikadaren bat, ez dakit zelango indar ifunen zuzendari balitz lez. Baiña A. Akesolok izenaren bidea itxita izanaren bidea jarraitu dau.

Ona emen bere etxaguntzako arloak eta aberastasunak. Emen batzuk bakarrik aitatuko dodaz, 1989ko *Karmel* aldizkarian agertzen dan zerrenda erabiliz:

* * *

1. Euskeraren testo zaar ezezagunak edo gitxi ezagutuak argitaratu ditu

Esate baterako:

1979: Euzkadia. Eusebio Maria Azkue zaneran poema (amaitu bakoa).

1982: Amaseigaren mendeko euskerazko "miserere" bat.

Santa Teresaren laudorioa (Lapurdidoko euskeraz).

Vivo sin vivir en mí (Zuberoko euskeraz).

* * *

2. Euskal idazle zaar batzuk argitaratu ditu argitalpen egokia eta batzutan ediziño kritikoa prestatu dau

1968: Bernad DECHEPARE, *Olerkiak*. Sarrera, erdal itzulpena eta grafia egokitu-ta.

1970: Joannes ETCHEBERRI, Nobelak eta kanta espiritual berriak, liburuaren sarrera eta argitapenaren ardura.

1983: Bernad GASTELUZAR, Eguia Catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac (Edizino kritikoa).

* * *

3. Argitaratu izan diran lan batzuen azterketa kritikoa

1977: Idazle baten zoritxarrak (Juan Tartas).

1980: ALTUNA BENGOCHEA, Francisco M., Versificación de Dechepare.

1987: Alta Bartolome Santa Teresa: Euskal errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba (Azkenengo edizioa).

* * *

4. Euskaltzaleen barri emoteko lanak. Euskaltzaleak bertokoak eta atzerrikoak be badira

1966: Pedro de Madariaga, calígrafo y vascófilo.

1962 Juan Pablo de Ulibarri Galíndez (1775-1847).

1967: Romanista y vascófilo ilustre: Carlos Augusto Federico Mahn.

1969: Azkue euskaltzale.

1971: Julio de Urquijo: euskaldun berri ta karlista berri.

1977: Aita Joan Mateo Zabala euskal-zale (1777-1840).

1961: Antonia de Olaeta, mujer del Licenciado Andrés de Poza.

1980: Arana-Goiri, euskalari.

* * *

5. Bertsolari zaar eta erri literaturako barri emoteko

1964: Orain 103 urte. Bertsozko estropadak. Santander alde batetik Bizkaia bestetik.

1972: Gure bertsolariak erdal idazle baten luman.

1974: Lau misio-kanta zaar (1838).

1978: bertsolarien lenengo barriak (Zamakola Arratiarrak).

1981: D. L. URKIZU Errosarioko bertsoen egillea, durangarra, alkatea.

* * *

6. Euskal idazle ezezagunen barri emoteko egindako lanak

- 1964: Una obra vasca ignorada "Erle gobernatzalleen guidariya". Dos escritores vascos bilbaínos: Luis Iza y Juan de Izurrategui.
1966: Zirilo Arzubiaga "Jaungoiko-zale" ta "Ekin"-en biotz izan zana.
1967: Escritor vasco muerto en la batalla de verdun: Clemente de Andurain.
1973: Aita Agustín Atutxa il da.
1988: Gitxi ezagutua dan euskal-idazlea: Enbeita'tar Imanol (1884-1946).

7. Itzulpenak

Berak egindako itzulpenak bi eratakoak dira. Kristinau liburuen itzulpenak egin dauz. Eta literatura lanak itzuli dauz. Eta irugarren zati baten, beste batzuk, batez bere euskal idazle zaarrak egindako itzulpenak aztertu dauz. Adibide batzuk aitatuko doguz baktotxerako, aurrerago lez:

- 1964: IRATZEDER-LERCHUNDI, *Salmoak* (Bizkaieratzaile: Lino Akesolo).
1963: Santa Teresa, *On-bidea* (Camino de perfección). A. Onanindiagaz batera.
1983: Domingo Iturrate zoriondun barria. Au bere dimostarra eta A. Akesoloren etxe ondoan jaioa.

Liturgia itzuipean batzordekoa asieratik izan da eta elizan entzuten eta irakurten doguzan gauza guztiak bere eskuetatik eta bere galbaetik igaro dira.

Besteen kristiñau liburuen itzulpenen azterketak ezagutzeko iru-lau adibide:

- 1970: Joannes Leizarraga. Testamentu berriaren leenengo euskeratzailea.
1972: Joannes Leizarragaren garaia.

Mende ontako gure Bibli-itzulpenak.

Literatura lanen artean bat gerraurrekoa aiatatu bear da.

- 1935: Cervantesen *Agure keskatiá* ("El celoso extremeño").
1951: Milla euskal olerki eder liburuan, 773-775 orrialdeetakoak. *Olerti* aldizkarian, 1963 eta 1967an baditu itzulpenak.
1968: Parnaso colombiano en euskera. Kolonbiar olerki-txorta euskeraz (sic).
Eta azkenik Saski-Naski aldizkarirako egin dituen itzulpenak.

* * * *

8. Euskera bera aztertzen

Euskeraren inguruan ez ezik euskera bera be aztertu dau A. Akesolok.

- 1979: Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste.
1982: Aditz-izena Lopez idazlearen liburuan.

Eta Euskaltzaindian gramatika batzordea sortu zanetik, A. Akesolo kide izan da, eta *Euskal gramatika. Lehen urratsak* liburuaren egileetarikoa bat.

* * * *

9. Euskal iztegiak. Bai, iztegiak, azken iztegi onen aurretik beste batzuk be argitaratu dituelako

- 1967: Un diccionario vasco inserto en "Memoires de la Langue Celtique" de Bullet, 1775-1780.
1969: Suplemento al diccionario precedente. Azkueren iztegiari eginiko eranskina da.
1976-1989 bitartean: Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca. iztegi au benetan aberatza da. Zubererako zati bat esku artean nerabilen. "Esprabi" berbea azaldu zan eta iñon ezin aurkitu, ez Azkueren ez Lhanderen iztegietan, Akesolorenean or agertu jakun berba ori.

10. Euskal kultura lantzen ibili diran batzuen alderdi desbardiñak aztertuz
1972: Aita Mokoroaren liburu berria. Gaurko ta biarko euskera.

1979: Jon Oñatibia eta Orixeri buruz.

1986: Lauaxeta eta A. Damaso Intza.

Zipitria.

1987: Lizardi eta Manuel Lekuonari buruz.

Batez bere A. Akesolok aitzu samar egozanak aztertu izan ditu.


* * *

A. Akesolok egin dauan bearragaz poztu egiten gara, gu danori zeregiña aurreratu deuskulako. Eta gañera irrintzi bat botaten deusku bakoxtak bere, al dogun neurrian geure euskera jorratu daigun.

Geure izanaren zatitxo bat dogu eta ez bakarrik geure izenaren zati. Bidea zabalduz, ori da A. Akesoloren lanen mezua danontzat, gu be "egiagaz iraultzaile izan gaitezan".

J. M.⁸ ETXEBARRIA
(Diman, 1989-VII-1)

("ZER" aldizkaritik).



LINO AKESOLO. BIZITZA ETA IZAKERA ZERTZELADAK

1

OBA'n

Lino Akesolo Diman (Bizkaian) jaio zan, Oba auzoan, Akesolo izeneko base-
rrian, 1911 eko jorraitaren 7an. Gurasoak: Antonio Akesolo Bikarregi, dimostarra,
eta Praxedes Olibares Intxaurbe, Zeanurikoa.

Leenengo ikasketak auzuneko eskolan egin ebazan, maisu euskaldunagaz, eta
ia euskeraz baiño ez eban entzun eskola atan. Bederatzi-amar urte bitartean
Diman irakasle partikularragaz ikasi ondoren, 192ean, Karmeldarrak Larran (Zor-
notzan) euken ikastetxera aldatu zan. Amar urteko mutikoak leenengoz urteten
eban benetan Atx-ostera: "Zer zan guretzat Atxoste? Erbestea, edo beintzat
munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduana
zan: gure erria baño askoz geiago ez. Mundu orren azkenengo mugak: Gorbea
ta Orozko-aldeko mendi-errezkadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, ta
an, urrin baten, Burgos-aldera edo, lausopean ziren lurren baltzunea, guretzat
izen bakoa" (*Atx-osteti Atx-ostera*).

* * *

ZORNOTZA'n, MARKIÑA'n, GASTEIZ'en

Ez dago urrin Zornotza, baiña mundu ezezaguna zan eta bizitza guztiz barria
mutikoarentzat. Alan be, ez erbestea; Euskalerria aurkitu eban an be pozik, ira-
kasle eta ikaslagun artean.

1926ean Karmeldarren nobiziaduan sartu zan, aurrean egoan amazortzigarren
gizaldiko komentuan, eta urrengo urtean profesa txikia egin bertan, 1927eko
agostuaren 14an.

Markiñan jarraitu eban bere ikaskideekaz urtebetez, bigarren maillako ikaske-
tak osotu bearrez.

Filosofia amaitutakoan Lino gurasoen etxera joan zan, illabete biko atseden
aldian osasuna indartu ekion.

Umezaroko etxe eta euskal mundua aurkitu eban Lino gazteak. Baita, esate
baterako, Azkueren *Cancionero Vasco be*; ordurako euskalzaletuta etorren Ake-
solak ia buruz ikasi arte erabilli eban joranez.

* * *

MEZAKO TA KAPELLAU. ESPETXEA

Begoñan lau urtez, 1931-1935, ekin eutson teologia gaiak ikasteari. Bertan mezakotu zan (1934. VII. 8). Ikasketak amaituaz, Zornotzako Karmeldarren ikastetxe ikastetxe barrira bialdu eben nagusiak, irakasle, eta, gero, *Karmelo* Argiaren zuzendari be bai. Urtebete eskas barru, baiña, kuartererako deia eldu jakon. Euzko gudarien Teniente Kapellau izan zan, Itxasalde batalloian, Matxin taldean, Otxandio-Legutiano, Lekeitio, Matxitxako, Lezama-Barandio eta Santo Domingo zear.

Espetxean iru urteko zigorra jasan eban, 1937-1940, Begoñako Karmelon, Nanklares'en, Palencia'ko Dueñas'en eta Sevilla'ko Carmona'n.

Zigorrerako errazoiak: Zuzentzen eban aldizkarian ideia nazionalisten zabal-kundea egiten ebala, eta kapellau izanez "rebelión militar" dalakora bultzatu ebazala gudariak.

Epai-maiteak jarritako 16 urteak egitez irura jatsi ziran azkenez. Kartzelan izkuntzak ikasteari ekin eutson Akesolok, inglesa, alemanera eta italiara.

~~*

IRAKASTEN ETA EUSKAL LANETAN

Ondorengo urteetan Kantabriako Hoz de Anerora bialdu eban Ordenako nagusiak, eta, gero, lruñara, Zornotzara, Corellara, Kantabriako El Soto'ra.

1948ean teologoen irakasle izendatua izan zan, eta, beraz, Begoñan jarraitu eban ordurik 1969 rarte.

Laster izan eban Azkuegaz eta beste euskaltzale batzuekaz artuemona.

1963ean Euskaltzain Oso izendapen artu eban; baiña beingoan, barruko naaste eta burruka asmatu rik, uko egin eutson. Urgazletzat dauke ordurik ona.

1964ean Bizkaiko Elizbarrutiko Liturgi Batzordekoa egiña izan zan, eta 1968ean, Elizbarruti arteko Liturgi euskeratza ille Taldekoa.

~~*

KARDABERAZ TALDEKO ETA EUSKERAZAINTZAREN LENDAKARI

Donostiko Karmeldarren nagusi aukeratu eben 1969ean, eta uri aretan egoala kardaberaz Bazkuna birsortukeran (1970ean) bazkide izan zan. 1972 ean Markiñara joan zan ango karmeldarren nagusi aukeratuta. Ango zeregiña amaitutakoan, 1975ean, Begoñara itzuli zan batez be Diccionario de Autoridades iztegian urragotik lan egian.

1978ean Euskerazaintza sortuaz batera, lendakari aukeratu eben kideak.

Nondik nora izan dan bere bizitza aipatu dogu gain-gaiñetik orain arte. Zer ikasi eta ikertu, zer argitaratu, ze lan egin dauan euskal kultur an esan barik.

Baiña bizitza guztian, eten barik egin izan dau lan jakiña danez. Lan ixilla, aintza ta sarien uste bakoa.

Alan be, azken urteotan, ustekabe, eldu jakoz autormenak: 1984ean Bizkaiko Elizbarrutiko elizgizonen omena (Kerexeta, Onaindia eta P. Puxanagaz batera) "eliz-lan ederrakaitik". 1987ean Labayru Ikastegiak omendu eban Derion. Aurten, jorra illaren 7an, Bizkaiko Aldudiak. Eusko Jaurlaritzak Euskal Letretako Merezi-mentuzko Sariaz goretsi dau eta gaur emen (1989-VII-1) Euskerazaintzak eta Euskerazaleak Dimako Udala eta erriagaz alkartuta omentzen dabe.

Akesoloren bizitzako azala ozta ikutu ondoren, alderdi batzuk azpimarratzea bidezko dogu.

Eziketaren betiko garrantzia. Jakiña, eskola-eziketa aurretik, umezaroko leenengo bizikizunak, sentipenak, giza gogoa eta biotza eratzen dabena; munduaren leenengo agerpena, bere onartze, balio eta eder-maitagarriak orduan jazoten da. Baiña ez da ñondik be naiko. Eskola-eziketak sendotzen ditu leenengo bizikizunok, mundu zabalagoaren barruen euren balio indartuz.

Lino Akesolok, eta lagunak, esate baterako, euskerari eta euskal kulturari gagokiezala, giro egokia aurkitu eben ikasketa aldian. Iarrako ikastetxean, euskera irakatsi egiten zan, erlejiñoa be euskeraz, latiñetik euskerara itzulpenak ondu azoten eutseezan, astean egun baten danak, erdeldunak be bai, euskeraz egin bear eben, jantokian euskerazko liburuak irakurten ziran, sariketetan parte arizera zirikatzen ebezan... gernikan orduan ospatu zan Eusko Ikaskuntzaren batzar sonatuak be euskeraren eta euskal izatearen nortasuna asmau-azo eutsen gatzetxuari.

Eta, geroago, gazte zala, giro bardiñean arnasa artzen eben. Markiñan, kondaira euskeraz ikasi eben, euskeraz irakurtzen zan jantokian euren esku eukezan euskal aldizkariak (*Zeruko Argia, Jaungoiko-Zale*).

Orduan eme jakon Akesolori Bartolome Madariaga ta abar irakurteko zaletasuna, eta Campionen "*Gramática*"ri esker euskalkiak ikasteko gogoa.

Filosofia aldian be giro jator aren erakutsiak ditugu: irakurgaiak jarraitzen dabe, eta, esate baterako Larramendiren Iztegia aztertzen dau Akesolok, eta idazle zaarretatik itzak eta esakerak batzen asi da. Cervantes'en "El Celoso Extremeño" eleberriaren itzulpenagaz, saria artzen dau (S. Onaindiak be beste bat eskuratzen dauala).

Teologia aldian, ikasketen azken partean, arlo guztietako euskal pizkundea euren be bada: Lizardi, Lauaxeta, Orixe eta abar zearo ezagunak ditue.

Eurak be asi dira emoten: Linok eta Onaindiak Santa Teresaren *Camino de Perfección* itzultzen dabe. Eziketa sustraiak onezkero sakonak dira; geroko jazoerak ez ditue sekula atarako.

* * * *

Jakingura zabalekoa. Azken urteotan batez be euskera inguruan, edo iztegi-lana dala, edo Liturgi itzulpenak edo idazleen goraberak dirala, ezagun biurtu da Akesolo, orretan espezialista berezi mugatua balitz lez. Baiña egi osoa beste bat da: Lino Akesoloren lanbide berezia (bere zaletasunaz be bat etorrena) kondaira landu eta irakastea izan zan, eliz-kondaira giza-kondairaren barruan, eta orren inguruko beste gai batzuk.

Batera, liburuak gaztelerara itzultzeari ekin eutson: latiñetik, frantzesetik eta batez be alemaneratik (inglesetik baten be izan eban esku), millaka orrialde teologi eta filosofi gaietaz. Ori zan Akesoloren jakintza mundua. Baiña orrezaz gaiñera, bera ezagutzen dabena badakie bere jakinna ia mugabakoa dala, edo nora doala edo edozer irakurten dauala, dana arretarik andienaz ikasi eta jakin nairik.

Kultura zabal onen barruan landu ditu, beraz, euskera eta euskal kultura, bereak eta benetan giza-kultura diranez.

* * * *



Egizalea eta zintzoa. Benetakoa dogu bere bizitzan, giza-artuemonetan, erlijio bizikuntzan, eta xaloea eta laua. Erlijioso danez, biziteko gitxigaz naikoa dauana, liburuetan izan ezik.

Azalkeria, arropuzeko dizdira eta begirune bako sasi-jakituria iguin ditu.

Bere kultura lanean, beraz, zeaztasuna, jakingarri oiñarrituak, zientzi sena dira nabari: euskal kulturari ekarri dautson bere emoiatariko bat.

Eta, orrexegaitik, ain zuzen, baten baiño geiagotan, egiaren eta zentzunaren gudari biurtzen da bere idazkietan, ganora gitxia eta ausardi andia zigortuz.

Baiña, zuzenaren aldekoa bete ondoren, ez uste asarre edo gelditzen danik. Beti izango dozu laguntzarako eta argibideren bat emoteko gertu. Eta benetakotasuna, lan etengabea, ixiltasun maratza ain maite dituan au, ez da bape muker-
ra lagunarterako, batez be autua jakingarriren baten ganean bada. Alkarriketa bizia, oar alaia eta esker ona.

* * *

Umanista. Giza kondairan eratu dan berba au ondo jagoko Akesolori: Jakingura urduri zabalagaitik, giza-letren maitasunagaitik, jakintza zeaztasunaz batera jazeko izkeraren dotoretasun neurritsua begiko daualako, Aurreko idazleak eta personaiak, euren alderdi onak eta lorpenak erakutsiz, kulturaren (adimen eta biotzeko bizitzan) zaindu nai izan ditualako. Bere bizikera eta lan guztian gizonaren oiñarrizko duintasuna erizpide eta ikuspegi daualako.

LUIS AROSTEGI
(Dima, 1989-VII-1)

EGURALDIAK, DEITURA ETA ESAERAK

AIZEAK

Aize berdea	=	Viento fresco, crudo.
Aize biurria	=	Viento arremolinado.
Bisuts	=	Ventisca.
Ego aizea	=	Viento sur.
Galgoia	=	Viento sureste.
Ipar aizea	=	Viento norte.
Ipar baltza	=	Norte crudo.
Mendebala	=	V. Oeste. Vendabal.
Uakana	=	Huracan.
Zigloia	=	Ciclón.

AIZEA bitarteko dala, esaera batzuk.

Iparra, baltza, fiña nai gorria, beti iparra. (El cierzo, llámesele negro fino o rojo, siempre cierzo).

Iparra dagonian, jakia soiñian. (Con el aierzo, la chaqueta puesta).

Iparra euki. Dardarea eukitea.

Markiñaldegorri, errekaizea gori.

Markiñaldeko aizeak, gonabarrenak aidean.

Terralarentzako kapia, kamaña azpiar (El mejor abrigo para el terral, bajo cubierta).

EURIA

Antxoa adurra	=	Udabarriko eurite meia.
Antxoa bitsa	=	Udabarriko eurite meia.
Antxoa euria	=	Udabarriko eurite meia.
Euri brastadak	=	Euri jasa gogorrak.
Euri jasak	=	(Aguaceros).
Euri lañoak	=	Urez beteriko lañoak.
Euri lanbrua	=	Euri lañotsua.
Euri lantxa	=	Euri ziriña. LLovizna.
Euri likiña	=	Indar barik jausten dan euri zikiña. Lluvia pegajosa.
Euri zaparrada	=	Txaparroiak.
Euri ziriña	=	Me-me jausten dan euria.

Euriari buruzko esaerak

Biar zelako eguraldia? = Sudesta eroan beintzat. (No olvides de llevar el sudeste). Capela de Iona de los pescadores.

Biar zelako eguraldia? Zirazko erropa jantzi ardua barik.

Mendebal busti, berrogei ta zortzi ordu euri.

LAIÑOAK

Erlaiñoa	=	Ego aldeko laiñoa.
Erreka laiñoa	=	Erreka aldetik datorrena.
Goiz laiñoa	=	Goizaldeko laiñoa.
Gurmak	=	Laiño berak. Brumas.
Ipar laiño	=	Ipar aldeko laiñoa.
Ipar odei	=	Cirros.
Laiñoa	=	Gurma. Niebla.
Lapitz laiñoa	=	Itxasertzean urrundik ikusten dan laiñoa.
Mendebal laiño	=	Sarkaldetik datorrena.
Odei burduntzi	=	Euria ekarten dabenei estu luzezkak. Estratus.
Odei txaramel	=	Euri odeiak.
Trumoi laiño	=	Sargoreak ekarten dabena.
Ur-laiño	=	Itxas gaiñean geratzen dan laiñoa.
Ziar-laiño	=	Mendebal laiñoak.

Esaerak

Gurmak euki. Asarre egon.

Gurmatan galdu zan gizona, andrea aizetan ebillan artean.

Gurmak itxasoan, kandela biztu arasa gaiñean.

Gurmatan txalupak tutuka, etxetan andrak erreguka.

ITXAS EGOERAK

Aize berdea	=	Aize zitala.
Aize olatua	=	Aizeak darabillan olatua.
Apoñua	=	Nastetsua. Borrasca.
Bare-bare	=	Itxasleuna.
Erlaizea	=	Olatu txikietan jolasean lez dabillan itxasoa.
Erresaka	=	Resaca.
Galarrena	=	Galerna.
Ipar baltz	=	Eguraldi gordiña. Iparraldetik datorrena.
Itxas kizkur	=	Mar rizada.
Itxas brastadak	=	Itxas erasoaldiak
Itxasoa txurlaka	=	Ligero balanceo del mar.
Kalma zuri	=	Calma chicha.
Mare berakua	=	Itxasoa berantza.
Mare biziak	=	Ur biziak.
Mare gorakua	=	Itxasoa gorantza.
Mare illak	=	Gorabera andi gabeko mareak.
Mare-punta	=	Gorakuan nai berakuan marearen jo-muga.

Mare-puntak eguraldi aldaketaren ezaugarri izaten dira sarri. Ala, eguraldia noiz etengo dagonean esaten da: mare puntara euria. Edo beste zerbait.

Esakerak

Aparra ta bitsa, anai arrebak. Itz ez bardin baiña bardintsu dirala.

At-ako Banda. Portutik kanporako joera.

Arraiña txarta-txartaka. (Arraiña itxas gaiñean saltad dabillanean).

Arraiña puzpuloa. (Itxasoa orrela ikusten danean, arrain ugariren ezaugarri izaten da).

Erriko bandan. Itxasotik errirantz datozanean.

Euri arraiña. Galiziatik etorten diran txorrotxaliei deitzen dautse deitura orregaz, euriak be alde aretatik agertzen diralako.

Gorria. Manjua. Antxoa, sardiña ta antzekoen moltsoa.

Itxas gorri, aizetsu.

Itxas zuri, aize edo euri.

Olatu abagunea. Olatuak ekin batetik bestera eukiten daben tartea.

Olatu bagak. Olatu andiak, sakonak.

Oreka, dendun. Equilibrio.

Orekari. Txalupa bat geldi ta zuzen eukiten daben erramularia.

Zirri-zarra portuan. Uren-joan etorrietako indarrez, portuetan egoten dan era-soa, egon eziña.

Itxas itzaren erabideak.

Itxasate

= Portutik sartu edo urtenerako ingurua. Barra.

Itxasote. Itxasoratze

= Itxasora arrantzara joatea. itxas kirikixua. Erizo del mar.

Itxas-triku

• Itxas zabalean.

Itxas-barru

• Ruta marina.


Itxas-bidea

• Costa. Litoral.


Itxas ertz.

Eta ainbat geiago.

A. Zubikarai



LINO AKESOLO



Bizkaiko Aldundiak aginduta
Bitor Sarriugarte'k 1989'n egindako laukia.

IDAZLAN GUZTIAK

Aita Lino Akesolo'ri egin jakozan omenaldietan, era batera nai bestera egin dautsoezan ezaupide eta agerpide ugarien artean, euskal mesederako geratu dan lanik jatorrena, bere IDAZLAN GUZTIAK izenez argitaratu dan liburua izango da.

Julen Urkiza lako artxibu-zale ta irakur zale asperbako bat bear zan orretarako. Eta or, orrialde luzeetan bere lanak. Ez danak. Lino'k lan asko egin daualako alkartasunean, edo taldekakoetan, bai eta itzulpenetan be.

Gure txaloak Urkiza'ri eta Argitalpen Ontaz liburu berbertan berak egiten dauazan oarrak gogoratuko doguz:

Lenengo ta bein argi uztea nai dogu: Bilduma onetan bakarrik L. Akesoloren lan jatorrak edo bere-bereak argitaratzen doguz, eta ez beste lanak, adibidez alkarlanean egindakoak eta itzulpenak.

Bilduma onen premiña:

L. Akesolo'ren bere idazlan asko an-or-emen sakabanaturik argitara emon dituen idazlea da; eta gaiñera euskal literatura oso gitxik lez ezagutu dauan idazlea eta euskalaria dogunez, beronen lan bilduma alik osoena egin eta euskalzaileen eskuetan ipintea egoki zala askok uste izan dabe eta geu jarri izan gara beronen idazlanen billa argitara emoteko asmotan. Ez da makala izan artu dogun nekea aldizkaririk aldizkari, alik eta idazle onen artikulurik geien billatu eta jasoten.

Lanen bilduma egin ondoren, eurok sailkatzeko zein metodo artu izan da gure arazoa. Lanen gaia kontuan arturik, guztiak gai nausi batzuen inguruan sailkatztea izan da gure erabagia. Baiña au ere esan bear dogu: gai nausi orren barruan, idazlan bakotxa, antxiñakoetatik asita, urtez urte, urrengorik urrengo argitaratzen dogula.

Au da egin dogun sailkapena:

I.—Euskera. Literatura. Kritika.

II.—Euskera eta Biblia.

III.—Euskal testodun idazlanak.

IV.—Kondaira eta biografia artikuluru eta oarrak.

V.—Liburuen barri-emoteak.

Ori da Julen Urkiza'k emoten dauan laburpena ta bide batez liburu-gida.